


Bergarako asteak

Berrigara



Udazken kulturala

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnok: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

Herri Aurrerakoia Guztiontzat

Euskal hiritarroi geure etorkizuna erabakitzeko aukera emango digun esparru politikoa dugu helburu. **Elkarrizketaren** bidez iritxiko den bakea eta adiskidetzea lortu behar ditugu.

Langabeziari aurre egingo dion lan banaketa duina da gure xedea. **Euskararen** benetako indarberritzea da gure helmuga.

Euskal eredu sozialdemokrata da gure jomuga.

Alkartasuna eta bizitzeko egokitasun handiagoa izango dituen herria eraiki nahi dugu.

Berezko hezkuntz sistema integratzaile eta kalitatezkoa gauzatu behar da.

Ekonomi-esparru lehiakor eta berriztatzailea eskuratu behar dugu.

Orain duzu aukera,

**EMAN
BOTOA**



eusko
alkartasuna





Urrutiko intxaurrak

Iñigo Iñurrategi / Ikaslea

Beti entzun izan dut norberaren herritik irten eta kanpora joateak, munduaren zilbortzat izan dugun horri urrutitik begiratu ahal izateak, nolabait ikuspegi aldaketa dakarrela. Ez bakarrik fisikoki, benetan txiki somatzen baita hemendik Euskal Herria, era orokorragoan baizik, batez ere guretzat soilik ditugun arazoak erlatibizatu egiten baitira, beste arazo berri ezberdin ugari ezagutzean. Beti entzun izan dut horrela, baina ez dakit orain guztiz ados nagoen.

Gure herria txikia dugu, baina sutenaren berri Quebec-eko egutegi eta telebistako albistegi guztiek eman zuten. Dena den, ez da erreza gertatzen hemen Albania edo Txinatik ihesi etorritako bati edo berdin quebecoi aberzale bati Euskal Herriaren egoera azaltea; non dagoen baldin badaki, gaitzerdi. Jendea ezagutzen noan heinean are eta nabarmenago igartzen dut munduaren erritmoa beste bat dela, eta inor gutxi konturatzen dela badela herri bat arazoak dituena, herri guztiek baitaizate beraien arazo partikularrak (baita

Nazio Batuen erakundeak bizi maila altuena duela esaten duen herrialde hotzetan ere).

Nahi izanez gero, horko arazoetatik deskonektatzea oso erreza gertatzen den arren, zorioneko Internetak tentatuta, momentuoro gaude horko berrien jakinaren gain (egunkariak sarri asko zuek gehienok baino lehenago irakurtzen ditugu, hurrengo egunekoa, hemen iluntzean, horko goizaldeko ordu ttikietan), eta alde batetik zilbor hestearen funtzio betegarria betetzen duen arren, batzuetan amorruez itzali behar

izaten da ordenagailua, inguru horietan astakeriak sarri loratzen baitira batzuen aho zein ekintzetan. Eta era horretako loreen kiratsa urrutitik hobeto igartzen delakoan nago (ikuspegi orokorra izatean akatsak nabarmendu egiten baitira). Alde batetik, urruti egoteak eta, bestetik, hain bat-bateko berriak jasotzeak, norberarengan tentsio handiak sortarazten ditu, erradikalago bihurtuz. Izan ere, hemen arazoaren egunerokokeriarik gabe, "ohituraren" koltxoirik gabe, amorrua errezago azaleratzen baita. Eta hemendik ezer gutxi egin daitekeen sentsazioa areagotu egiten da.

Enbidia ere ematen du momentu hauetan bertan ezin egoteak, baina hasitakoari eutsi beharko diogu. Hemen ere gauzak berotzen ari dira, eta ziur nago poliki-poliki Quebec-en garatzen ari den prozesuak oihartzunik izango duela gure alde horretan. Oraingoan, datorren udaberrian beste erreferendum bat egingo ote den zabaltzen ari da, eta gero gerokoak. Ea erreferentzia gisa baliogarri zaigun. **B**

"Hemen, Quebec-en, euskal arazoaren egunerokokeriarik gabe, 'ohituraren' koltxoirik gabe, amorrua errezago azaleratzen da. Eta ezer gutxi egin daitekeen sentsazioa areagotu egiten da"

■ barruan



Antonio Olaizola

Baserritarra, Elosun saritua

"Kanpotik ekartzen denaren aldean oso kalitate oneko haragia daukagu hemen"

8. orrialdean.



Reyes Azkoitia

BKEko pilota entrenatzailea

"Guraso, kolaboratzaile eta epai lanetan dihardutenek laguntza handia ematen dute"

22. orrialdean.



Kontxi Etxeberria

Meca-Renault tailerrekoa

"Aurten urte guztian saldu ditugu kotxeak. Alde horretatik oso urte ona izan da"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1953. Urriaren 12an Agorrosingo futbol zelaia inauguratu zen. Aurretik, Zurragan eta Torrekoan izan ziren Bergarako futbol zelaiak eta 1920 aldera hasi zen lehen aldiz Agorrosin erabiltzen. Baina errenta ordaintzeko diru faltan, zenbait urtez zelaia laga beharrean izan ziren herriko futbol taldeak. Azkenean, 1952. urtean Bergara Kirol Elkarteak sortu, lurraz erosi eta gaur egungo zelaia egin zuen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1936. Urriaren 17an frankistek "Aitzol" apaiz tolosarra hil egin zuten Hernaniko hilerri ondoan.

MUNDUAN GERTATUA

1967. Urriaren 9an Ernesto "Che" Guevara ejekutatatu zuten militar bolibiarrek.

1972. Urriaren 13an Uruguako rugby talde bat zeraman hegazkin batek istripua izan zuen Andean. 45 lagun zihoazen eta 29 hil egin ziren. Bizirik irten zirenek 70 egun eman zuten mendian eta giza okela jan behar izan zuten bizirik irauteko.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 9

3-4-9-26-32-39 (osag.45/er.2)

Astelehena 12

7-24-25-28-36-39 (osag.1/er.8)

Martitzena 13

10-11-25-34-45-47 (osag.44/er.0)

Eguaztena 14

2-15-22-23-44-49 (osag.1/er.1)

PRIMITIVA

Zapatua 10

10-11-14-23-36-39 (osag.25/er.6)

Domeka 11 Gordo

10-16-28-36-46-47 (osag.27/er.3)

ONCE


Eguakitza 9: 98.469 (K. seriea: 082)

Martitzena 13: 34.180

Eguaztena 14: 77.652

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Eguakitzean urdinguneak nagusituko dira zeruan, baina zapatu arratsaldetik aurrera hodeiak ugalduz joango dira eta tenperaturak behera egingo du. Domekan euria egin dezake eta, han hemenka, ekaitza.

Ilargiaren aldiak

	Ilbehera: urriak 12
	Ilberri: urriak 20
	Ilgora: urriak 28
	Ilbete: azaroak 4

Eguzkia

Domeka, urriak 18



Sortu: 08:31



Gorde: 19:32

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 8	12	10	50,8
Eguakitza 9	12	10	34,2
Zapatua 10	13	8	7,6
Domeka 11	17	10	6,6
Astelehena 12	16	14	4,5
Martitzena 13	20	10	-
Eguaztena 14	24	7	-


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Albadorratz

Koltxoiak, zakuak eta halakoak josteko jostorraz handia.

- Albadorratza lana senduakin josteko; ero idobaliakin be bai; artilezko galtzak konpontzeko be bai.



JOSU OKINA



Anabel Salinero
Urriaren 16an
19 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Alberto Salinero
Urriaren 11n
26 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jaime Garcia
Urriaren 14an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Sanchez
Urriaren 12an
16 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Gorka Maiztegi
Urriaren 19an
8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Fernan Jauregi
Urriaren 9an
38 urte.
Urte askotarako!
Amilortekoak.

Farmaziak

Eguakitza 16:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 17:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 18:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 19:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 20:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 21:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 22:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 18: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirlalde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Julen Herran
Urriaren 2an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak eta losu.



Leire Mellado
Urriaren 8an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Asier.



Karlos Aguila
Urriaren 7an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Juan Aguila
Urriaren 10ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Fermina Leturiaga
Urriaren 11n urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Mirari Lete
Urriaren 8an 24 urte.
Urte askotarako!
Antzuolako lagunak.



Itziar Retes
Urriaren 12an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Igoitz Retes
Urriaren 15ean 16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Garazi Diaz
Urriaren 8an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Haritz Diaz
Abuztuaren 28an 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maitane Arteaga
Urriaren 19an 5 urte.
Urte askotarako!
Alex.



Gorane Elorriaga
Urriaren 18an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eneko Cruz
Urriaren 10ean 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Aitzol Gandiaga
Urriaren 15ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxerkoak.



Kepa Sansiñena
Urriaren 18an 2 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amona, gurasoak eta Maite.



Eneko Prat
Urriaren 17an 12 urte.
Urte askotarako!
Ama.



Maria Agirre
Urriaren 18an urtebetetzea.
Urte askotarako amama!
Familiako denok.



Itsaso Aranzabal
Urriaren 18an 8 urte.
Urte askotarako bihotze!
Familiakoak eta koadrilakoak.



Julen Unzueta
Urriaren 14an 6 urte.
Urte askotarako!
Aritz eta gurasoak.



Arantxa Jauregi
Urriaren 11n 39 urte.
Urte askotarako!
Lagun bat.



Olatz Larrañaga
Urriaren 19an 12 urte.
Urte askotarako!
Ama.



Ioritz Polanco
Urriaren 19an 9 urte.
Urte askotarako!
Naiara, Ander, Blanca eta German.



Maite Azkargorta
Urriaren 11n 37 urte.
Urte askotarako!
Lagun bat.



Pili Hernandez
Urriaren 8an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Koinata, Hodei eta Aitzol.

URTEURRENA

Rolando Goñi Beain

Lehen urteurreneko meza domekan,
urriak 18, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.




URTEURRENA

Asuncion Larrañaga Orbea

Lehen urteurreneko meza domekan,
urriak 18, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.




URTEURRENA

Urbana Blazquez Diaz

Lehen urteurreneko meza domekan,
urriak 18, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.




ESKER ONA

Josefa Arrue Jaka

Bergaran hil zen
1998ko urriaren 8an,
87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoiei eskerrik asko sendikoen izenean.



■ jaiotakoak

BERGARA
Nerea Julian Lorente
Urriak 4
Iratí Bretaña Olabarria
Urriak 4

■ hildakoak

BERGARA
Josefa Arrue Jaka
Urriak 8, 87 urte
Ellen Kenny Flynn
Urriak 8, 91 urte



Mari Mar Mateo
Urriaren 18an 41 urte.
Urte askotarako!
Amilotzeko lagunak.



Ramon Agirrezabal
Urriaren 19an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Ainhoa eta Maitane.

ANTZUOLA
Meliton Pardo Quintana
Urriak 10, 89 urte

MUSIKA

► **Jesus Lizard** eta **Pulkas** taldeak gaur, eguakitza, 22:30etan Jam aretoan. Zapatuan, ordu berean, **Backyard babies** eta **The hot dogs**.

► **Udal Musika Bandaren** kontzertua domekan, 12:30etan, Frontoian.

BERTSOAK

► **Kubako repentistak eta Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbio** bertsolariak gaur, eguakitza, 22:30etan Eibarko Urkizu parkean.

ERAKUSKETAK

► **Bergara Hiria XIV. Argazki Lehiaketak** lanak Kultur Etxean domekara arte, 12:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

► **Xabier Agirre**ren margo erakusketa Bilboko Ederti galerian (Alda. Rekalde, 37) urriaren 31ra arte.

IKASTAROAK

► **Islada bideo tailerrak** antolatuta, edizio ikastaroa urriaren 23tik azaroaren 27ra. Argibideak Kultur Etxean (943 77 91 58).

MUSIKA

Roman Perucki

Noiz: zapatuan, 20:00etan
Non: San Pedro parrokian
Sarrera doan

Udazken Kulturalaren programazioaren barruan Roman Perucki organujole poloniarren kontzertua izango da bihar, zapatua. 1985ean Gdansk-eko Musika Akademiaren graduatu zen Perucki eta ordutik hainbat master ikastarotan parte hartu du. Era berean, kontzertu ugari eman ditu munduan zehar, tartean Alemanian, Italian, Ukrainian, Estatu Batuetan, Norvegian edo Ingalaterran. Gaur egun Gdansk-eko Musika Akademiako irakaslea izateaz gain, Baltic National Philharmonic-eko zuzendari orokorra eta artistikoa eta Olivako katedraleko lehen organista dugu. Honetaz gain, besteak beste, Olivako Nazioarteko Organu lehiaketa antolatzen duen Pomeraniako Musika Sakratu Elkartearen presidentea ere bada. Poloniako organujole bikainenetakoa ei da Perucki eta 1991n Couperin-en "Messe pour les paroiss-

ses" bere grabazioa Poloniako diskorik onena izendatu zuten. Irrati eta telebistarako grabaketak ere egin izan ditu.

Peruckik honako pieza hauek eskainiko ditu bihar: Ch. M. Widor-en (1844-1937) "Bosgarren sinfonia", Augustyn Bloch-en (1929) "Fantasia" eta Marian Sawa-ren (1931) "Fuga bolero". Lehendabiziko pieza XIX. mendeko pieza erromantikoa dugu, San Pedroko organuan (1889 urtekoa) joteko aproposa. Hurrengo biak, berriagoak, armonia aldetik oso pieza aberatsak dira. Iaz bezala, aurten ere organu kontzertuek tartea izango dute Udazken Kulturalako programazioan, izan ere, joan zen urteko edizioan programatu ziren bi kontzertuek harrera ona izan zuten zaletuen aldetik. B



Mallie frantziarrak udan ezagutu zuen San Pedroko organua.

EL CORREO

► **Juan Martin Elexpuren** eskutik **literatur tailerra** (estilistika eta idazketa lantzea) izango da urriaren 21etik aurrera (eguztenetan, 18:30etatik 21:00etara) Eibarko Portalea aretoan. Argibide gehiago 943 70 71 53 zenbakian.

LEHIAKETAK

► **Gabriel Aresti XVI. Ipuin Lehiaketa.** Ipuinak (euskaraz zein gazteleraz) DIN A-4 motako 15 orrira artekoak izango dira eta lanak aurkezteko epea

urriaren 30ean bukatuko da. Lanak ondoko helbidera bidali beharko dira: Bilboko Udala, Kultura eta Turismo Saila, "Gabriel Aresti XVI. Ipuin Lehiaketa". Ernesto Erkoreka plaza, z/g. 48007 Bilbo.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



Eska ezazu aurrekontua konpremezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf.: 943 76 55 02 Faxes: 943 77 11 30

LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



SUBIJA

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

DEIAK

► **Hitzaldiak:** "Pauso bat aurrera zoriotsuago izateko", martitzenean, 19:30etan Miguel Altuna Institutuan. Hizlaria: Juan Luis Urkola, Kutxako Marketing saileko zuzendaria. Eguenean, ordu berean eta Antzuolako zine aretoan, Imanol Sorondo apaiza ermiten historiari buruz izango da hizlari.

► **Bedelkarrek** antolatuta, euroari buruzko hitzaldia eguaztenean, urriak 21, 14:15etan UNEDen.

► **Mendi irteera.** Gorla Alpinok eta Pol-Polek antolatuta, domekan Ocio-Txulato-Berantevilla irteera, 7:30etan Frontoitik.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, urriak 21, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Argazki-rallya** urriaren 25ean Bergaran. Izen-ematea egunean bertan, 8:30etatik 9:30etara Pol-Pol Argazki Taldearen lokalean, Zabalotegin. Argibideak 943 76 33 98 (Juan Antonio).

► San Joxepe elkarteak **Donostiako La Perla bainuetxera joateko irteerak** iragarri ditu azarorako. Bestalde, urriaren 26an Gernikako feriara egun osoko irteera egingo da. 943 76 21 40.

► **Madurako bazkideen urteko batzarra** domekan: 11:00etan lehen deialdia eta 11:30etan bigarrena egingo da.

KINTADAK

► **1959**an jaiotako enafaria urriaren 24an Antxonin jate-txean, 20:30etan Frontoian bildu ondoren. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Goxo-Tokin edo Antxonin urriaren 20a baino lehen.

► **1949**ko kintoen anaiarteko eguna urriaren 24an. 12:30etan salda hartzea Sagarpe elkartearen eta ondoren bazkaria Txuringo jate-txean.

► **1955**ean jaiotako enafaria urriaren 31n Antxonin. Izen-ematea bertan, 943 76 20 40 telefonoan.

► **1940**an jaiotako enafaria azaroaren 7an Antxonin jate-txean. Izen-ematea: 943 76 34 36 (Mari Tere) eta 943 76 45 75 (Begoña).

► **1947**an jaiotako enafaria azaroaren 7an Tartufo jate-txean, 21:00etan. Izen-ematea 943 76 35 51 telefono zenbakian.

► **1995/96** ikasturtean UBIn ibilitako enafaria azaroaren 14an Antxonin. Egunean bertan Pol-Polen elkartuko dira, 19:30etan. Izen-ematea (1.000 pezetako aurrerapena) Antxonin.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Bergara 1926
Eguakitza: 20:00 (sarrera doan).

Salvar al soldado Ryan

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30.

Kull el conquistador

Domeka: 11:30.

The Brave

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Los amantes del Circulo Polar

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:00.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Relacion mortal

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Atilano presidente

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Salvar al soldado Ryan

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
Martitzena: 20:00.

Flubber

Domeka: 17:00.

AZKOITIA. Baztartxo

No hay pelotas

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.

Godzilla

Domeka: 16:45, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

BERGARA 1926

Egileak: Azkona anaiak.

Santo Kristo Hilzorikoaren harreraren 300. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, Udalak herriari buruzko pelikula bat egitea agindu zion Bilboko Lux etxeari. Azkona anaiak Bergarako etxe eta jauregiak, lantegiak edota jaiei buruzko irudiak jaso zituzten. Pelikula mutua, gaztelarazko azpitituluduna eta Juan Carlos Irizarren musikaz lagundua. 37 minutuko iraupena duen dokumentu historikoa.

SALVAR AL SOLDADO RYAN

Zuzendaria: Steven Spielberg.

Aktoreak: Tom Hanks, Edward Burns, Matt Damon.

1944ko Normandiako lehorreratzea azaldu nahirik, gerrari buruz zinean zeagutzen diren irudi gordinenetakoak filmatu omen ditu Spielbergek. *Miller* kapitainak (Hanks) zuzentzen duen konpainia alemaniarren eremuan sartu beharko da amerikar soldadu bat askatzeko...

THE BRAVE

Zuzendaria: Johnny Depp.

Aktoreak: Marlon Brando, Marshall Bell, Johnny Depp.

Johnny Depp aktore ezagunak zuzendutako lehen filma. *Morgantown* justiziarik gabeko herria da. *Rapbael* (Depp) emaztea (Elpidia Carrillo) eta seme-alabekin bizi da bertan. *Rapbaelek* lana aurkituko du hirian eta bertan bere arima saldu beharrean egongo da...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47



Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 943 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskapareak...

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

Agite baserrikoa, Antonio Olaizola azpeitiarrak (58 urte) beti eskuratzen du sariren bat Elosuko Mendiko Ganadu Ferian. Partaiderik beteranonetakoa eta, dudarik gabe, sarituenetakoa dugu Olaizola. Aurtengo edizioan ere epaimahaiak talderik onenari zegokion saria eman zion eta, horrez gain, zezen onenarena ere eroan zuen.

G. Urtero jasotzen duzu sariren bat Elosun. Konpetentzia barik gelditu zara?

E. Ez, konpetentzia beti egoten da. Urte guztian zehar feriaz feria ibiltzen naiz; diputazioek antolatzen dituzten ferietan eta Elosukotan hartzen dut parte (bost bat feria guztira) eta Elosukoa mendiko ganadu feriarik onena dela esango nuke. Oso maila oneko abelburuak izaten dira eta ez pentsa saria jasotzea erreza denik. Dena den, saria eskuratzea ez da inportantea. Oso giro bikaina izaten da eta gustora hartzen dut parte, ia edizio guztietan izan naiz. Guztion artean feriak duen mailari eutsi egin behar diogu. Aurten ere partaidetza handia izan da eta etorkizunean bide bereetik jarraitzea interesgarria litzateke.

G. Elosuko Ferian asko saltzen da?


E. Erostera baino egun pasa etortzen da jendea. Ikusmina handia izaten da baina zuzeneko salmentei begiratuta ez da gehiegi saltzen. Hala ere, beti egoten da aukera traturen bat egiteko edota zuzeneko salmenta egiteko. Aurten ere ezin kezatu alde horretatik.

G. Elosun irabazteak emango du prestijiorik...

E. Bai, beti ematen du zerbait. Feria ezaguna da

ANTONIO OLAIZOLA
Elosuko Ferian saritua

*“Guztion artean
Elosuko Feriak duen
mailari eutsi behar
diogu etorkizunean”*



Antonio Olaizola azpeitiarra astelehenean Elosun eskuratutako trofeoekin.

Gipuzkoa mailan, komunikabideetan badu oihartzuna eta jende asko etortzen da. Horrek badu eragina eta sariren bat jasotzeak nolabait zure lana ezagutzera eman dezake.

G. Blonda arrazako behiak ekarri dituzu. Nola-ko arraza da blonda?

E. Behi, txekor eta zezenak ekarri ditut, hamar

*“Haragi mundiala
daukagu hemen
eta kanpokoaren
aldean ona.
Hobe da
zertxobait gehiago
pagatu eta haragi
ona jatea”*

abelburu denera. Blonda behi arraza da gehien gustatzen zaidana, berez ganadu lasaia eta zintzoa delako, manejatzeko aproposa hain zuzen (udan solte laga eta neguan kortan gordetzen ditugu). Era berean, pisurik handiena behi hauek hartzen dute. Modu naturalean gizentzen ditugu eta oso maila oneko okela ematen dute. Berez, Akitania aldekoa da blonda arraza eta 1.000 metrotik beherako mendietan ondo moldatzen dira, hemengo zelaietan ez dute inolako arazorik ematen.

G. Okelatarako bakarrik erabiltzen dituzue?

E. Bai, okelatarako eta arrazako bisitetarako, behia txahaletik hasten da eta. Gipuzkoan eta Bizkaian haragi mundiala daukagu eta kanpotik ekartzen denaren aldean ona, alde ederra dago! Hemengo Labeldun haragia oso kalitate onekoa da. Hori jakinda, hobe da zertxobait gehiago pagatu, baina behintza, haragi ona jatea. Prezioari bakarrik ez zaio begiratu behar.

G. Konpetentzia handia duzue?

E. Bai, kanpotik haragia merkeago etortzen da, baina ikusi egin behar da haragi merke horrek zer nolako kalitatea ematen duen. Egia da lehen, orain dela 6-8 bat urte, askoz gehiago saltzen zela. Orditik hona haragiaren prezioak mantendu egin dira eta pentsuak, esate baterako, gora egin du.

Egoera hori ikusita, baserriar asko desanimatu egin da eta baserri bizi-tzea gero eta zailagoa egiten da. Hemengoak baserri txikiak dira, lur gutxiak eta produktzioa ondo definitu beharra dago. Horretan jarduteko baserri handiak behar dira, baina hemen ez dago nahikoa lur. B

Hezkuntza sailburua Miguel Altuna Institutuan bisitari eguaztenean

Inaxio Oliveri hezkuntza sailburuak eta Eneko Oregi sailburu ordeak Miguel Altuna Institutua bisitatu zuten eguaztenean.



Inaxio Oliveri eta Eneko Oregi, Hezkuntza sailburua eta sailburu ordeak, ikastetxeko zuzendariarekin eta irakasle batekin.

Lanbide Heziketa Eskolak jaso berri duen ISO 9002 kalitate ziurtagiria dela eta, Hezkuntza saileko buruek gertu gertutik ezagutu nahi izan zuten ikastetxearen eguneroko jarduna. Jose Mari Larrañaga zuzendariarekin batera, eskolako gela eta tailerrak bisitatu zituzten.

Miguel Altuna Institutua, Martutene eta Tolosako Lanbide Heziketa Institutuekin batera, ISO 9002 kalitate ziurtagiria eskuratu duen lehen ikastetxea da eta Hezkuntza sailburuak eta sail-

buru ordeak horregatik zoriondu zituzten ikastetxeko zuzendari, irakasle eta ikasleak.

Lorpen hau Hezkuntza departamenduarentzat ohore bat dela esan zuen Olive-

rik. "Miguel Altuna Ikastetxea eredu bihurtu da kalitate ziurtagiria eskuratzeko bidean eta lanean dauden Euskal Autonomi Elkarte 40 ikastetxerentzat. Eskola honek kalitatearen kultura

bultzatzen du eta hobetzeko ahaleginetan etengabe dihardu lanean" esan zuen. Bergarako ikastetxearen giza baliabideak eta ekipamendu teknikoak azpimarratu zituen. B

Hauteskunde kanpainen bete betean alderdi politikoak

Jose Gorrotxategi Euskal Herritarrok taldeko kideak, hitzaldia eman zuen joan zen egunean, UNED-en. EHren hauteskunde programaren nondik norakoak azaldu zituen eta egoera politikoari buruzko azalpenak eman zituen.

Bestalde, kanpainen bete-betean ditugu egun hauek alderdi politiko guztiarako hautagaiak. Astelehenean, PSE-EEko karabana izan zen frontoian eta, eguaztenean, berriz, EAKoak izan ziren Bergaran. Inaxio Oliveri eta Eneko Oregi Hezkuntza sailburua eta sailburu ordeak, Koruko Aizarna



Euskal Herritarrok taldeko Jose Gorrotxategi joan zen eguneko hitzaldian.

Kultura diputatua eta Luis Mari Oiarbide Iargi artxiboa bisitatzen izan ziren eta, ondoren, kalean ibili ziren propaganda banatzen.

Datozen egunotarako, bestalde, honako hauek dira iragarri diren ekitaldiak: bihar, zapatua, bizikleta martxa egingo du 18:00etan

Euskal Herritarrok-ek. Eguaztenean, ostera, Joseba Egibar EAJko Gipuzkoako zerrendaburuak eta Nuria Lopez de Gereñu zerrendako bosgarrenak, mitina emango dute 20:00etan Miguel Altuna zaharrean.

Egun berean, Jesus Egiuren eta Gemma Zabaleta Gipuzkoako zerrendetan bigarren eta hirugarren doazenak, PSE-EEko egoitzan izango dira.

Bukatzeko, eguakitzean, hilak 23, mitina antolatuko du San Martin plazan 19:30etan Euskal Herritarrok taldeak. Nortzuk etorriko diren zehazteke dago. B



Jose Maria Pagola bikario nagusia, Beragar eta Antzuolako jubilatuetako buruekin eta agintariek.

Bikario nagusiak zabaldu zuen jubilatuen kultur hamabostaldia Datorren astean Imanol Sorondoren hitzaldia

Martitzenean eman zirtzaion hasiera Antzuola eta Bergarako jubilatuen II. Kultur Hamabostaldiari, Jose Antonio Pagola bikario nagusiaren hitzaldiarekin. "Pauso berriak jubilatuen fede-bizitzan" gaiaren inguruan jardun zuen bikario nagusiak, Miguel Altuna Institutuko areto nagusian. Lehenago, kultur hamabostaldiaren aurkezpena egin zuen Tomasa Zabaletak, San Joxepe jubilatuen elkar-

teko presidentek. Ekitaldian, Victoriano Gallastegi alkatea eta Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Diputazioko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria ere izan ziren.

Esan dezagun, bestalde, astean zehar hainbat ekitaldi izan direla eta datorren martitzenerako, Juan Luis Telleria Kutxako Marketing saileko zuzendariaren hitzaldia iragarrita dagoela. "Pauso bat aurrerago zo-

rionsu izateko" gaiari buruz jardungo du 19:30etatik aurrera Miguel Altuna Institutuan. Eguenean, berriz, Antzuola eta Bergarako ermiten historia izango du mintzagai Imanol Sorondo Añorgako parrokoak, Antzuolako zine aretoan 19:30etan. Eguakitz arratsaldean, azkenik, bisita gidatua egingo dute jubilatuek Oñatira. Urriko azken aste-rako ere hainbat ekitaldi daude iragarrita. B

Orio Arraun Elkarteari omenaldia egingo dio Otseinek

Orio Arraun Elkarteari omenaldia eskainiko dio zapatuan Otsein-Mayc enpresak, Orioko arraunlarien babesleak. Goizeko 11:00etan Mayc-era bisita egingo dute eta 12:45etan harre-ra egingo zaie Udaletxean. Bertan, aureskua dantzatuko zaie arraunlariei eta, ondoren, Victoriano Gallastegi alkatearen eta Mayc-eko ordezkariaren agurra jasoko dute. Orio Arraun Elkarteko presidentek hitz batzuk luzatuko dizkie bildutakoei eta, amaieran, kontzertua eskainiko du Ignacio Gonzalez Escala Kamara Orkestak, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean. Emanaldi laburra izango da. Udaletzeko ekitaldiaren ostean, Pertxan bazkaria izango da.

Oriokoak traineru eta guzti etorriko dira Bergarara eta arraunlari eta buruzagiak ere bertan izango dira.

Oriok nagustitasuna erakutsi du aurtengo arraun denboraldian. Traineruan Otseinen izena erakutsi du jokatu diren estropadetan.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

ileapaindegia
eder gela

—disdira—

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

Joan zen eguena izan zen urteko egunik euritsuena

Joan zen eguena, urriak 8, egunik euritsuena izan zen Bergaran. 50,8 litro metro karratuko batu ziren, Luis Mari Agirre Narbaizabolukoak eman dizkigun datuen arabera. Bezperan ere euri dexente egin zuen, 34,2 litro metro karratuko. Irailaren 23an, berriz, 46,6 litro batu ziren Bergaran eta urteko bigarren egunik euritsuena izan zen.

Azken asteak oso euritsuak izan dira eta horrek izan du eraginik. Argazkia eguakitzean atera genuen eta ikus daitekeen bezala azkenaldian ez bezala zetorren erreka. Bestalde, euriak lubiziak sortarazi ditu egun hauetan hainbat tokitan. Eguen gauean harri batzuk

jausi ziren bariantetik Oxirondoko azoka aurreko espaloira. Harriek ez zuten inor harrapatu, Udaleko langileek inguruan hesiak jarrita zituztelako. Horretaz gain, Beheko Estazioetik ba-

riantera irteteko bidegurutzeko semaforoak hondatu eta egon dira Pilareko zubian eta, ondorioz, trafiko arazoak izan dira. Astelehen gauean, esaterako, istripua izan zen bertan. **B**



Deba ibaia azkenaldian ez bezala zetorren eguakitzean Zubieta inguruan.

Lapurretan egin dute herriko elektrizitate denda batean

Astelehenetik martitzenerako gauean, goizaldeko 4:30ak inguruan, lapurretan egin zuen Santos elektrizitate denda. Lapurrak denda ondoko ataritik sartu ziren dendara. Masterreka 2 etxeko atariko atea indarrez ireki zuten lehenengo eta ataritik dendara sartzeko dagoen atea, ondoren. Hi-fi aparailuak eta bideoak eraman zituzten lapurrek.

Azkenaldian lapurretak direla eta, Ertzaintzak oinarritzako gomen-dio bat eman digu lapurrak etxetara sartu ez daitezen: sarrerako atea bi bueltarekin ixtea.

Asfaltua konpondu eta zebra bidea pintatu dute Ibargarain

Udaleko langileak Beheko Estazio aurreko errepidea konpontzen aritu dira aste honetan. Udan, inguru-a asfaltatu, oinezkoentzako zebra bidea pintatu eta automobilak astiroago ibiltzeko irtenune batzuk jarri zituzten zoruan.

Baina, handik gutxira irtenuneak kendu egin zituz-

ten altuegiak zirelako. Kontuak kontu, inguru-a ez zen oso egoki geratu eta, gainera, euri asko egiten duenean potzuak sortzen dira.

Hori guztia ekidin eta konpontzeko, zorua berriz asfaltatzen eta oinezkoentzako zebra bidea pintatzen aritu dira aste honetan Udaleko langileak. **B**



Udaleko langileak eguenean ibili ziren konponketa lanetan.

iRUDI
Erlojudenda
Bitsiturgia
Ibargarai 2
943 6 51 65

Fiskala
Lanekoa
Kontablea
Aseguruak
TG AHOLKULARITZA
TBG. Ander Alberdi Lete / Zuzenbidean lizentziatua
Matxiategi 36, behea Tf. 943 76 90 83
20570 BERGAR Gipuzkoa Faxe 943 76 92 04

TRANSBER
TG
Era guztietako kargak
Iraulkiak-Grua
Matxiategi 36, behea BERGARA
Tf. 943 76 90 83. Faxe 943 76 92 04

Berrigara

339 zenbakia.
1998ko urriaren 16a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: **JARDUN Elkarte**

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:**
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: **Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

AMNISTIAREN BIDEAN TREGUARIK EZ

ETA erakundeak su-ete-na iragarri zuenetik, partidu eta talde askok keinu bat egin dezala ari zaizkio gobernuari, euskal presoen hurbilketa alegia.

Guk esan beharra daukagu hau ez dela keinu bat. Urteetan eskatzen ari gaitzaizkie Madrileko eta Gasteizeko gobernuari euskal presoen eskubideak errespetatzeko. Presoak Euskal Herrian egotea eta gaiso sendaezinak eta zigorarren hiru laurdenak bete dituztenak kalean egotea dira euren eskubideak.

Bestalde, ETA erakundearen su etenaren ondoren, itxaropena heldu da Euskal Herriko txoko guztietara. Mundu guztia bakeaz hitz egiten ari da, baina bake hori hel dadin oraindik borroka luze bat geratzen zaigu eta guk borrokan jarraituko dugu.

Euskal preso guztiak etxean egon arte borrokan jarraituko dugu. Amnistia.

Okupazio indarrak Euskal Herriatik alde egiten ez duten bitartean, borrokan jarraituko dugu. Alde he-mendik.

Euskal Herriko komisaldegietan torturatu egiten den bitartean, borrokan jarraituko dugu. Hemen torturazten da.

Euskal Herria independente eta sozialista izan arte borrokan jarraituko dugu.

Guretzat ez dago treguarik Euskal Herri libre bat ikusi arte. Amnistia eta askatasuna!

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komitea

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Botoa emateko, lehendakarigaia ala alderdi politikoa eta honen programa hartzen duzu kontutan?



Agustin Heis

Nik alderdiari ematen diot lehentasuna. Politikoeak esaten dutenari ez diot garrantzi berezirik ematen. Hauteskunde aurreko kanpainak nigan ez du eraginik.



Txema Vela

Partidua eta programa izaten ditut kontutan. Kandidatua zatarra edo atsegina izan daiteke, baina ideiak argi ez baditu, ez dit balio. Botua erabakita daukat.



Tomas Unamuno

Hautagaiak bere garrantzia dauka, baina nik lehentasuna alderdiari ematen diot. Botoa erabaki dut. Kanpainari jarraitzen dut, baina interes berezirik gabe.



Juana Mari Sanchez

Ez dut inoiz botoa eman eta aurten ere ez daukat asmorik. Politika ez zait interesatzen. Politikoak agindu bai, baina ez dute agindutakoa betetzen.



Jaione Cuevas

Ez diet garrantzi handirik ematen hauteskundeei, baina programa hartzen dut kontutan. Dena dela, ez dakit zein alderdiri emango diodan botoa.



Maite Guenetxea

Biak hartzen ditut kontutan, alderdia eta hautagaia. Erlazioa dago bien artean. Kanpainak eragin pixkat badu, baina dagoeneko botoa erabakita daukat.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Mikel Zabaletak mezu bat laga zigun astebukaeran erantzungailuan. Astebukaeran igerilekuak itxita zeudelako protesta egiteko deitu zuen. Piszinetara joan eta arazo teknikoengatik igerilekuak hiru egunez itxita egongo zirela jakin zuen Mikelek, bestelako azalpenik gabe. Lagun batek igerilekua hustu egin zela eta berriz betetzen ari zirela aipatu zion. Mikelen arabera, ez da lehen aldia horrelako ur ihes batengatik igerilekuak itxen dituztena eta Udalari azalpenak eskatu nahi dizkio, ez baitzaio normala iruditzen igerilekuetan horrelako arazoak gertatzea eta kaltetuenak berriro ere erabiltzaileak izatea.

■ ikuspuntua: **jon ander bengoa**

Bukaera

Denbora, arrakasta, etorkizuna, fe-dea..., eta abar luze bat; kontzeptu, hitz edota ideia hauek guztiak izendatzen ditugulako esistitzen dira edota aitzitik, berez hor daude eta hauei izen bat emateko beharra dugu.

Hauxe izan zen aurreko egunean bururatu zitzaigun galdera halako solasaldi zentzugabe horietako bat izan eta gero.

Bizitzaren arlo ezberdinak hasiera eta amaiera bat dutenaren ideiaz mintzatu ginen, eta neu pertsonalki konklusi-



gure bizitzako etapa ezberdinen artean ere ez dago etenik, hots, noiz esan dezakegu haurtzaro, gaztaro edota zahartzaroan gaudela?

Geure gizartearen, badirudi guztia sailkatu eta denbora batean kokatzeko beharra dugula, eta horrela maiz entzu-

sio batera heldu nintzen: ez dago bukaerarik, guztia prozesu bat baita.

Pertsonen arteko harremanak ez dira bukatzen, aldatzen baizik...;

ten ditugu "etapa berri baten hasiera", edo "hori burutzeko garaia amaitu da" bezalako esaldiak. Guztia hasi eta bukatu egiten denaren pentsamendua barneratuta dugula iruditzen zait, eta orduan arazoa zera da: hizkuntzak, hau da, kulturak hitz edota esakune berezi batzuk sartuak eskaintzen badizkigu, ba al dugu geure pentsamendu propioa izateko askatasunik?

Badakit hau esatea gehiegizkoa dena, baina hitz egitea ez al da azken finean hitz joko bat baino? Politikarien mitinak entzutea besterik ez dugu horretaz ohartzeko. **B**

■ asteko menua: zubi-berri jatetxea

Barazki panaxea



ZORIONE URIBARREN
Zubi-berri jatetxeko sukaldaria

OSAGAIK (4 laguntzat)

- Azalore erdi
- Lekak (200 gramo)
- Espinakak (5 orri)
- Idarrak (200 gramo)
- Brokoli bat
- Bost penka
- 4 azenario

PRESTAKETA

- Barazki guztiak egosi, ez gehiegi, banan-banan, nahastu barik.
- Behin egositakoan barazkiak zatitu eta pilatxoak egin.
- Pilatxo horiek plateretan txukun-txukun jarri, kolorearen arabera tartekatuz.
- Olio erre egin eta barazkiei gainetik bota.
- Oharra: komenigarria da barazki guztiak sasoikoak eta freskoak izatea.

■ adituen esanetan

Eixampleko bortxatzailea

SABIN ZABALETA, *abokatua*

Egunotan zeresan ugari eman du Eixampleko bortxatzailearen kaleratzea. Hain zigor kartzela luzea jasota (592 urtekoa), 13 urte bakarrik igaro ondoren kalean nola egon daitekeen galdetzen du jendeak. Lehenik eta behin, bi alderdi bereiztu behar ditugu: kartzela zigor teorikoa batetik (mugarik ez duena) eta, bestetik, praktikoa, hau da, pertsona batek zenbat iraun dezakeen kartzelan.

Oraingo Kode Penal berrian normalki 20 urteko epea dugu eperik luzeena (25 eta 30 urtera ere iritsi daiteke). Eixampleko bortxatzailearen kasuan badirudi 20 urteko erreferentzia hartu

dela. Tope hauek aintzakotzat hartuta, zigorraren hiru laurdenak beterik izanik finkatzen da askatasun baldintzatu. Beraz, 15 urtera jaisten gara. Bestalde, Kode Penal zaharraren arabera, kartzela barruan egindako lanek ere kartzela zigorra murrizteko balio dute eta hortik bueltan 15 urte bete aurretik kaleratu da Eixampleko bortxatzailea. Beraz, Kode Penal zaharra zein berria aplikatzeari etekina atera dio.

Sexu delituetan tratamendu psikiatrikoaren aukera jaso beharko litzateke. Kaleratzeko garaian gaisoa osatu barik dagoen kasuetan tratamendu hormonalaren ezartzea proposatuko nuke. B

■ bergarako gordailutik

OSPITALEA Imanol Sorondo

Aspalditik zegoen Magdalena izeneko ospitalea Bergaran; XV. mendean behin baino gehiagotan azaltzen da bere izatea. Garai haietan, eta geroago ere bai, Bergaran egiten ziren testamentu batzuetan zertxobait uzten zitzaion ospitaleari: garia, haragia, sagardoa eta abar. Bestalde, bertan zeukan bere egoitza labangileen kofradiak eta Magdalenaren elizatzoon bere zaindaria zen Matias Apostoluaren irudia ipini zuten. Bazarretarako gela bat ere bazegoen.

Sukaldean, bost ohe zeuden, bere buruko eta lumetxako bigungarriekin eta ehunezko estalkiekin

Gainerakoan, 1542 urteko datu hauek esango digute nolako zen bere eguneroko bizitza:

Lehenengoa, behetxean, sukaldean, bost ohe zeuden, bere buruko eta lumetxako bigungarriekin eta ehunezko estalkiekin; dena, behar zen guztiarekin. Beste gela batean, bost ohe gehiago behartsuentzat; hauek ere behar zen guztiarekin. Kanpotik zetozen behartsuentzako, berriz, beste zortzi ohe behar zen guztiarekin.

Goiko bizitzan beste lau ohe zeuden behartsuendako prestaturik. Hor alboko gela batean egiten zuen lo ospitaleko arduradun zen Lesarritar Andres Perezek. Badaezpada ere, bazeuden han eta hemen hamar buruko zahar eta beste hainbeste bigungarri, baina ez ziren erabiltzen. Kutxa ugari zegoen gela guztietan; gainera, sei kupel, sukaldeko tresnak, sagardoarendako ontzia, ogia oratzeko mahaia, pertzak; txerria, zaldia eta behia bere umearekin. Sagardi bat ere bazeukaten Iruorluetan.

Hamairu bat behartsu bizi ziren ospitalean. B

Argazkilari sarituak

Eguakitzean **Bergara Hiria XIV. Argazki Lehiaketako sariak** banatu ziren Kultur Etxean. Berangoko **Javier P. Fernandezek** jaso zuen lehen saria kolore kategorian eta baita zuribeltzekoan ere. Berarekin batera, zuribeltzean, **Benito Cantero** (2. saria), **Andres Indurain** (3.a) eta **Jose Agustin Gurrutxaga** (herriko onena) saritu zituen epaimahaiak. Koloretan, **Iñaki Delgado** izan zen bigarrena, hirugarren **Javier De la Flor** sailkatu zen eta herriko onena **Zigor Ruiz de Egin**o izan genuen. Lehiaketara aurkeztutako argazki onenekin osatutako erakusketa domekara arte izango da ikusgai.



pelota" izenekoa, ikusleen txalo zaparrada luzea jasoz. Hemendik pare bat urtera beste elkartruke bat egitekotan geratu ziren Virgen de la Guia eta Xamatze taldeak. Bestalde, **Juan Cruz Gezalaga** antzuelarrak jaso zuen Xamatze San Martinetan egindako zozketaren saria, **Ibon Unamuno** Xamatzeko kidearen eskutik jasotako 50.000 pezetako txekoa.

Dantza jaialdia

Zapatuan jende dexente bildu zen Frontoian Zizandako dantza jaialdian. **Santa Maria del Paramo**-ko (Leon) **Virgen de la Guia** taldeak, **Aranzadi Ikastolako dantza taldeek** eta **Xamatze** saio bikaina eskaini zuten eta ikusleak oso gustora geratu ziren ikuskizunarekin. Xamatzek, Leone-
ra egindako bisita itzuliz, leondarrek euren dantzak erakutsi zituzten Frontoian, tartean "La jota de la



Elosuko feria euripean

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, urtero moduan, Elosuko feriak jende ugari bildu zuen. Kinkilleroek negozio ederra egin zuten astelehenean guardasolen salmentarekin. Bestalde, ganadu ferian, **153 abelburu** bildu ziren eta sarituak hauek izan ziren: **Antonio Olaizola** (talderik eta zezenik onena), **Pako Badiola** (blonda arrazan), **Pello Legorburu** (pirenaietan), **Juan Mari Lizarralde** (txarolesan), **Agustin Badiola** (asturiarrean), **Txomin Oruesagasti** (limousinetan), **Mateo Gabilondo** (gaskoignetan), **Asensio Sodupe** (behoretan), **Luis Mari Aiestui** (idietan) eta **Rexu Balerdi** (ardietan). Antolatzaileak pozik azaldu ziren partaidetza eta ikusleen aldetik jasotako erantzunarekin.



DENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen hilabetekaria.
2. zuzenki. 1988ko urria.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe - Txos Azurmendi.
Tirada: 11.500 ale. Tf.: 943 76 03 97. Faxa: 943 76 29 77.

35.000
IRAKURLE

Berrigara Arrasate

MARKA ETA MODELOA	MATRIK	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ALDIBI AUTOAK. Zigarrola, 1. Arrasate. Tf. 943 71 20 02				
Fiat Punto 60 SK		1996	AH, IK, LK, 3 ate, 25.000 Km.	1.100.000
Opel Vectra 2.0		1992	AG, AH, Metalizatua, 4 ate, 92.000 Km.	1.200.000
Fiat UNO 1.4		1993	AH, KE, 3 ate, 94.000 Km.	700.000
Renault Clio 1.9 RT		1991	KE, IZ, 120.000 Km.	850.000
Seat Ibiza 1.5		1990	3 ate, 101.000 Km.	450.000
AMETS TAILERRAK. Berezano auzoa 5. Oñati Tf. 943 78 19 50				
Fiat Ducato	SS-AW	1996	Autokarabana, 6 plaza	3.175.000
Ford Mondeo 1.8 TD Fam.	SS-AW	1996	ABS, AG	2.100.000
Ford Mondeo 2. Ghia	SS-AP	1993	SE, ABS, AG	1.600.000
Ford Fiesta 1.1	SS-AN	1992	5 ate	600.000
ASEGINOLAZA TAILERRAK. Urteaga 37. Bergara. Tf. 943 76 12 50				
Peugeot 306 XR 1.4	NA-7982-AJ		KE, IZ, IK, LD	1.100.000
Ford Scort Ghia 16V	M-9701-UW		Airbag, AG, IZ, IK, KE	1.625.000
Ford Mondeo CLX 16V	SS-7597-AS		Airbag, AG, IZ, IK, KE	1.375.000
BMW 320 I	LO-3529-J		LD, IZ, KE	550.000
Peugot 205 X2D	SS-5264-AJ		3 ate, Diesela	625.000

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 pta.ra arte

*2: 300.000 - 500.000pta.

*3: 500.000 - 750.000pta

*4: 750.000 - 1.000.000 pta.

*5: 1.000.000 - 1.500.000 pta

*6: 1.500.000 - 2.000.000 pta.

*7: 2.000.000 pta.tik aurrera



Auto-errekabioak

Ibargaral 33, behea. BERGARA
943 76 29 95



Automobilaren
karburazio eta
elektronika



Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

**AUTO DESGUACES
BERGARA**



943 76 35 47 (desguazekoa)
943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA



TXURRUKA AUTOAK S.L.

- Garajea
- Garraio zerbitzua
- Taxi zerbitzua

Aitziturri 5. San Lorentzo. Bergara.
Tf. eta faxa: 943 76 12 36.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30				
Peugeot 806 ST 2.0	M-UM	1997	Full equiped	*7
Peugeot 106 Sketch 1.1	M-UP	1997	Oinarrizkoak	*4
Peugeot 306 XS 1.6	M-UC	1997	3 ate, AG, IZ, KE	*5
Ford Fiesta 1.4 Ghia	CC-K	1991	IZ, KE, 5 ate	*2
VW Jetta 1.6	SS-AJ	1990	IZ, KE	*3
Ford Orion Diesel	SS-AJ	1990	IZ, KE	*1
Renault 11 1.7 Gasolina	SS-Z	1987	Oinarrizkoak	*1
Peugeot 205 GT	SS-W	1986	Oinarrizkoak, Merkea	*1
BERGARA AUTOAK. Amillaga 10. Bergara. Tf. 943 76 04 58				
Audi A4 TDI	Ipintzeko	1996	KL, ABS, Airbag, IZ, KE	Kontsultatu
Audi 80 TDI	Ipintzeko	1992	AH, 4 KE, IZ, Alarma	Kontsultatu
Audi 80 TDI Familiar	Ipintzeko	1993	AG, KE, IZ	Kontsultatu
Mercedes 300 TD	Ipintzeko	1989	AG, KE, IZ, ABS,	Kontsultatu
Peugeot 405 1.9 T	SS-AS	1994	AG, KE, IZ	Kontsultatu
VW Transporter 2.4 D	Ipintzeko	1994	LD	Kontsultatu
Peugeot 306 D	Ipintzeko	1996	AG, Ah, Alarma	Kontsultatu
BMW 325 TDS	Ipintzeko	1996	KL, Airbag, ABS	Kontsultatu
BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43				
Audi 80 1.8 E	SS-AB	1988	LD, 4 KE, IZ	*3
Ford Mondeo 2.0 Ghia	SS-AP	1993	Full equiped	*5
Ford Sierra 2.0 GL	SS-Z	1987	Kilometro gutxi	*1
Citroen C15 E Club	SS-AC	1988	5 Plaza	*1
GURTZAIN GARAJEA. Almirante Bikuña z/g. Legazpi. Tf. 943 73 00 92 / 929 43 74 12				
Citroen C-15	SS-AL	1992	4 Kubierta berriak	675.000
Land Rover 88	SS-L	1986	Egoera onean	400.000
Nissan Patrol 6 C	SS-AG	1989	Kablestantea	1.500.000
WV Transporter	Ipintzeko	1988	Margotu berria, Mekanika ona	550.000
Suzuki Vitara GT	SS-AK	1991	Kilometro gutxi	1.370.000

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haginak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 pta.ra arte

*3: 500.000 - 750.000pta

*5: 1.000.000 - 1.500.000 pta

*7: 2.000.000 pta.tik aurrera

*2: 300.000 - 500.000pta.

*4: 750.000 - 1.000.000 pta.

*6: 1.500.000 - 2.000.000 pta.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	--------	-------	-------------	---------

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Citroen AX Diesel	SS-AL	1991	IK,3 ate, 6 hilabeteko garantia	575.000
Citroen ZX Turbo Diesel Volcane	SS-AS	1994	KE, IZ, LD, AH, IK, 6 hilabeteko garantia	1.500.000
Fiat Tipo 1.8 16V	VI-M	1991	LD, IZ, KE, AH, 3 hilabeteko garantia	650.000
Opel Corsa GSI	SS-AJ	1991	Ahinbat osagarri,3 ate, 3 hilabeteko garantia	750.000
Peugeot 405 GRDT	SS-AJ	1990	Ahinbat osagarri, 6 hilabeteko garantia	900.000
R-21 Manager	SS-AM	1992	LD, IZ, KE, 6 hilabeteko mermea	850.000
ZX enpresakoa	Ahinbat	96-97	Urte bateko garantia oso	kontsultatu

MARKIEGI Autoak. San Lorenzo z/g. Bergara. Tf. 943 76 35 09

Nissan Primera 1.6 SLX	SS-AM	1992	Egoera onean, IK, Metalizatua	*4
Citroen C 15 Gasolina		1989	5 plaza, kristaldua	*2

MECA TAILERRAK. San Andres Auzoa, 8. Arrasate. Tf. 943 79 59 99/09

Renault 21 TDX	VI-L	1990	5 ate, AG, ABS	795.000
Renault 19 TSE Chamade	SS-AF	1989		585.000
Renault Laguna RT 2.2 DT	SS-AY	1997	AG, Goi mailako osagarriak	2.250.000
Renault 21 GTX	SS-AK	1991	AG	525.000
Renault Clio RT 1.4	SS-AL	1991	Goi mailako osagarriak	515.000
Renault Laguna RT 2.0	SS-AZ	1997	AG, Goi mailako osagarriak	1.975.000
Peugeot 205 GRD diesel	SS-AK	1991		585.000
Opel Corsa 1.2	SS-AG	1989		375.000
Citroen ZX Diesel Avantage	VI-O	1991		995.000
Citroen Xantia 1.9 DT	SS-AX	1994	AG	1.250.000

MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 973 79 07 44

Ford Scort TD 90 zaldi		1994	Full equiped	
------------------------	--	------	--------------	--

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 pta.ra arte

*3: 500.000 - 750.000pta

*5: 1.000.000 - 1.500.000 pta

*7: 2.000.000 pta.tik aurrera

*2: 300.000 - 500.000pta.

*4: 750.000 - 1.000.000 pta.

*6: 1.500.000 - 2.000.000 pta.

LAGUN GARAJEA

Javier Gallastegi Arenaza Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- PreITV

ORAIN HELBIDE BERRIA!
Santalaitz, 3 • Bergara • Tel.: 943 76 11 20

Dena 44

Gurzain garajea
Almirante Bikuña, z/g LEGAZPI
Tel.: 943 73 00 92

Adi chistariak!

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga, 4 • BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

IVECO
El mundo del transporte

MARKA ETA MODELOA	MATRIK	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
Ford Scort TD familiarra		1996	Full equiped	*
Ford Scort D familiarra		1993	Full equiped	*
Peugeot 405 TD		1992	Full equiped, AG	*
Peugeot 405 TD		1992	Full equiped	*
Opel Vectra GT 2.0		1991	Full equiped, AG, ABS	*
Peugeot 405 TD		1990	Full equiped, RS ekipoa	*
Ford Mondeo TD		1994	Full equiped, AG	*
Toyota Land Cruiser TD		1998	Full equiped, AG, Airbag bikoitza	*
Nissan Patrol V6 Diesel		1992	Full equiped	*

* 40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pta. artean. Zatoz ikustera!

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Citroen C15 Diesel	SS-AB	1988	Oinarrizkoak	400.000
Opel Kadett		87-88	4 eta 5 ate	Negoziatzeko
Opel Vectra 1.7 TD	SS-AW	1996	Full equiped	2.050.000
Ford Nomade 1.8 TD	SS-AS	1994	Oinarrizkoak	Negoziatzeko
VW Golf GTI 2.0i	SS-AP	1993	AG, AH, KE, IZ, LD, IK, etab.	1.600.000
Peugeot 605 SRDT	SS-AK	1991	Full equiped	1.300.000
Audi 100/200		1990	Full equiped	Negoziatzeko
Citroen AX 1.1	BI-AT	1987	3 ate	325.000
Isuzu Trooper 2.8 Turbo Intercooler	SS-AJ	1990	7 plaza	Interesgarria

* Auto ugari 500.000 pta. arte. Zatoz ikustera!

SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80

Ford Mondeo GLX 1.8	SS-4012-AP	1993	Full equiped	*5
Ford Mondeo 2.0 Ghia	SS-5111-AP	1993	AG	*5
Renault 21 Manager	SS-0177-AF	1989	AG	*3
Renault Super 5 GTL	SS-3651-AB	1988		*2
Opel Vectra 2.000	Z-4530-AJ	1990		*3
Citroen TDI Turbo	SS-7908-AL	1991	AG	*3
Audi 90 2.2	SS-8641-AS	1994		*4
Fiat Uno SX	SS-5325-AM	1992	5 ate	*2
Golf 1.6 CL	SS-8193-AF	1989		*2
Opel Kadett 1.6	M-HW	1987	5 ate	*2
Opel corsa 1.4	SS-2382-AK	1991	5 ate	*2

TXOMIN GARAJEA. Lizarraga auzoa. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Citroen AX 1.1	SS-AB	1988	IK, 2 ate	*1
----------------	-------	------	-----------	----

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 pta.ra arte

*3: 500.000 - 750.000pta

*5: 1.000.000 - 1.500.000 pta

*7: 2.000.000 pta.tik aurrera

*2: 300.000 - 500.000pta.

*4: 750.000 - 1.000.000 pta.

*6: 1.500.000 - 2.000.000 pta.

Energia eolikoa ohizko
enargien alternatiba


Hemen dira zentral eolikoak

Mendizaleak kezkatuta parkeen kokapenagatik

Gipuzkoako Mendizale Federakundea eta hainbat mendi elkarte (tartean Bergarako Pol-Pol taldea) gure mendietan zentral eolikoak kokatzearen aurka azaldu dira. Elgeako zentral eolikoa Euskal Autonomi Elkartearen egingo den lehen zentrala izango da eta 2005 urtera bitartean horrelako gehiago martxan egotea aurreikusten da. Irukurutzeta-Karakate aztertutako kokaleku posibleen artean dago.

Eguaztenean Arrasateko Udaletxean emandako prentsaurrekoan Gipuzkoako Mendizale Federakundea, bailarako mendi elkarteak, Eki eta Eguzki talde ekolojistak edota Abiadura Haundiko Trenaren Aurkako Asanblada mendietan zentral eolikoak jartzearen aurka azaldu ziren. Oraingoz, Elgeako zentrala (Araba eta Gipuzkoa arteko mugan dagoena) eraikitzeko lanak urte amaieran hastea aurreikusten da, eta 1999ko erdialdera martxan egotea. Hala ere, Jaurlaritzaren Estrategia Energetikoari buruzko plangintzan jasotzen denez, 2005 urterako Euskal Autonomi Elkartearen 175 megawatio potentzia eolikoa izan nahi da eta horrek parke eolikoaren gehitzea ekarriko luke berarekin. Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala onartu bitartean, aipatutako zentralen kokaleku posibleak (800 metrotik gora gehienak) aztertu dira eta horien artean Irukurutzeta-Karakate agertzen da.

Jon Ugarte Gipuzkoako Mendizale Federakundeko kideak prentsaurrean azaldu zuenez, "zentralen promotore



edo bultzatzaile den Eolicas de Euskadi enpresak Euskal Autonomi Elkartearen zentralak jartzeko izendatutako 26 kokaleku posibleetatik zazpi Gipuzkoan dira, horietako bat Irukurutzeta-Kara-

kate hain zuzen". Elgean egin den bezala, mendizaleek zentralak mendian kokatzearen aurka daude; "arrazoi nagusia mendien industrializazioa litzateke. Zentralek gure mendien lehen in-



Jon Ugarte
Gipuzkoako
Mendizale
Federakundeko
kidea
eguztenean
Arrasaten
emandako
prentsurrekoan.

dustrializazioa suposatuko lukete eta oso aurrekari arrisksua izan daiteke hori. Plangintzak aurrera eginez gero, gure mendi garaietan zentral ugari ikusi ahal izango dugu, mendi-ibilbide garantzitsuen erdian kokatuta. Elgeako zentrala, adibidez, 1995etik parke natural izendatzeko zain dagoen Aizkorriko parkean joango da. Gure ondare arkeologikoan, hegazti populazioetan, landareetan eta lurlean eragin kaltegarria izango du zentral hauen eraikitzeak”.

Instalakuntza txikiagoak

Zentral eolikoaren aurkako idatzia sinatu duten taldeek planaren atzean dauden erakundeen jarrera salatu zu-

ten, “gauzak ezkutuan eta isiltasun osoz eramateagatik. Elgeako zentralari aurkeztutako alegazioak ere ez zizkiguten onartu eta erantzun sinplistik jaso genituen”. Energia eolikoaren kontra ez daudela argitu nahi dute: “energia eolikoaren aldekoak gara, baina ezin

**“Energia eolikoaren
aldekoak gara baina
ezin dugu onartu zentral
erraldoiak gure
mendietan kokatzea,
inguruarekiko kaltea
izugarria delako”
JON UGARTE**

dugu onartu zentral erraldoiak mendietan kokatzea. Energia eolikia autokontsumorako erabiltzen bada, ondo ikusten dugu. Zentral eolikoek ez dute gure energia beharra beteko eta, beraz, onena izango litzateke energia kontsumoari eutsi, gure baliabideak aztertu (jarri nahi diren Gamesako haize-errotak ez dira onenak gaur egun) eta inguruarekiko eragina kontutan izan. Inpaktua hain handia ez izateko zentralak haize gutxiago dagoen tokietan jar litezke eta zentral erraldoiak barik autohornikuntzarako instalakuntza txikiak aldarrikatzen ditugu. Azken batean, zentral hauen eraikitzearen arrazoi nagusia enpresa batzuen diru gosea besterik ez da”.

Jaurilaritzaren Ente Vasco de Energia erakundeak eta Iberdrola enpresak Eolicas de Euskadi sortu zuten duela urte batzuk energia eolikia zentralizatuz argindarra sortu eta saltzeko. Javier Marques Eolicas de Euskadiko zuzendari gerentea da, Ente Vasco de Energian energi iturri berriztagarrien bulegoko arduraduna delarik. Bere hitzetan, “Eolicas de Euskadi enpresaren ahalegin guztiak oraingoz Elgeako proiektua gauzatzera bideratuko ditugu eta espero dugu datorren urtearen erdialderako martxan egotea. Era berean, beste parke eoliko batzuk eraikitzeak kokaleku posibleak aztertu izan dira, ingurugiro baldintzak edota irizpide ekologiko, ekonomiko edota urbanistikoak kontutan hartuz. Lojikoaren denez, ezinbestekoa da aipatutako tokietan haizea egotea

HAIZE-ERROTEN KONTRAKO AKANPADAK ETA MENDI MARTXAK

Zentral eolikoaren aurka azaldu diren taldeek, mendien aberastasuna ezagutu eta zabaldu nahirik, akanpadak antolatu dituzte datozen egunetarako. Ondare ekolojikoari eutsi nahirik, ez dute haize-errotarik ikusi nahi Euskal Herriko mendietan eta gaiarekin sentsibilizatuta dauden guztiak gonbidatu nahi dituzte aipatutako akanpadetan parte hartzera. Bihar zapatua, urriak 17, Degurixan lehendabiziko akanpada egingo da, arratsaldeko 5etatik aurrera (arratsaldeko 3retan Arrasateko Portaloian bilduko dira partaideak). Hurrengo egunean, domekan, Elgeara mendi martxa egingo da. Partaideak eguer-

diko 12etan Amuategiko tontorrean elkartuko dira eta bertan hitzaldiak eta bestelakoak izango dira, bertaratutakoen artean salda banatuz. Urriaren 31n, berriz, Karakate eta Atxolin bitartean beste akanpada bat egingo da. Era berean, azaroaren 1erako, Irukerutzeta-Karakate mendi martxa iragarri da. Ekitaldi hauekin bat egiten dutenak hauek dira: Euskal Mendi Federakundea, Abiadura Haundiko Trenaren Aurkako Asanblada, Eguzki, Eki eta inguruetako mendizale elkar-teak, besteak beste, Besaide, Murruxiko, Aloña-Mendi, Lagun Onak, Soraluzeko Mendizale Elkarte eta Pol-Pol. B

eta, beraz, aukeratutako toki asko mendiak dira. Azken batean dauden abantailak eta eragozpenak izango dira kontutan. Argi dago eragozpenetako bat argi dago paisaiaren aldaketa dela baina abantailak ere asko dira”.

2005 urterako asmoak

Marquesek egindako kalkuluen arabera, Estrategia Energetikoaren plan-



Javier Marques,
Eolicas de
Euskadiko
zuzendari gerentea

“Energia eolikoa ohizko energien alternatiba erreal bilakatu da gaur egun eta promozionatu beharra daukagu, gainontzeko energia berriztzaileak bezala” JAVIER MARQUES

gintzan aurreikusten diren 175 megawatio eolikoak lortzeko nahikoa izango da 2005 urtean laupabost parke eoliko martxan egotea. Berak azaldu digun moduan, “oraingoz kokaleku posibleen identifikazioa baino ez da egin eta goiz da oraindik izenak aurreratze-ko, Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala onartu behar delako aurretik. Ikusi egin beharko da energia eolikoaren aldeko apostua egiten den edota beste energia iturri batzuk bultzatzen diren”.

Elgeako parkearen kasuan, onurak edo irabaziak nabarmenak dira Marquesen iritziz: “EAEn kontsumitzen den

argindarraren %0,5 lortuko da eta zentral termiko batean 22.200 tona ikatz edo 15.000 tona petrolio erretzea saihestuko dugu, besteak beste, CO2 bezalako gas kaltegarrien emultsioen jaitsierarekin negutegi efektua gutxituz. Ingurugiro baldintzak nabarmenki hobetuko direla esan genezake. Energia eolikoa ohizko energien alternatiba erreal bilakatu da eta promozionatu beharra daukagu, gainontzeko energia berriztzaileak bezala”. Euskal Herrian energia eolikoa bultzatzeko baldintza egokienak ematen ote diren galdetuta-koan, zera esan digu: “egia da Galizian edo Estatuko beste hainbat tokitan baldintza hobekak dituztela, baina hainbat metrotik gorako tokietan emaitza onak lor daitezke. Dena den, jendeak ez dezala pentsa mendi guztiak haize-errotaz beteko zaizkigunik. Eta ez dut uste hainbeste jende dagoenik parke hauen kontra. Nafarroan ere Elgeakoren moduko zazpi instalakuntza martxan dira dagoeneko. Ohiko energia iturrien aurrean asko dira energia berriztzaileak defenditzen dituztenak ere”. B

Pakearen alde,
enpleguaren alde,
... EUSKADIREN ALDE

EZKERRAREN ORDUA



Elkartasunaren botoa

ezker batua



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

10:00: Komando Piperrak-Ion Autoak	Bayer
11:00: Bayer-Ezinleike	Ion Autoak
19:00: Bildurbarek Opel/Lam-Pagomendi	Shaktale
20:00: Shaktale-Bar Canalejas	Pagomendi

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Txipiron-FAC	Amilotx
10:30: Amilotx-Eri Sirimiri	Ion Autoak
11:30: Ion Autoak-La Juve	Eri Sirimiri
16:00: Ari Ari-Xurruapak	Errotagain
17:00: Errotagain-Azpeitxi Jatetxea	Mongatxurrak
18:00: Mongatxurrak-Ortzi	Azpeitxi
19:00: Agiñaspi-Amozkibar	Ufala
20:00: Ufala-Guadalest	Amozkibar

argi!

Bi partiduko zigorra

Arbe Kirolak taldeko Emilio Cajeteri bi partiduko zigorra ezarri dio Antolaketa Batzordeak aurkari bat astintzeagaitik eta modu txarrak erabiltzeagaitik.

Arauk gogoratuz

Antolaketa Batzordeak, arau berriak ezagutzea eskatu nahi die berriz ere talde guztietako jokalariei. Alboko sakaia ondo ez egitea falta izan arren, ez dira pilotuko. Bestalde, atezaina areatik kanpo irten eta baloia hankarekin ikutzen badu, falta izango da baina atezainak ez du zigorrik jasoko. Azkenik, atezainak areatik kanpo irten eta baloia eskuarekin ikutzen badu, 3 minuturako kanporatua izango da eta bere taldearen kontrako falta izango da.

jokoz kanpo



Jabi Azkarate
EZINLEIKE

- G.** Nola hasi duzue txapelketa?
E. Ondo. Bi partidu irabazi eta bat berdindu ditugu. Aurten iaz baino hobeto arituko garela iruditzen zait. Gu beti hoberantz goaz.
G. Zein postutan jokatzeko duzue?
E. Atzean. Golak sartzen baino hobeto moldatzen naiz.
G. Taldearen batz besteko adina?
E. 30 urte.
G. Jokalari berririk taldean?
E. Lau jokalari berri ditugu. Aurten, guztira, 18 gara.
G. Partiduak jokatzeko garaian jende arazoak izaten dituzue?
E. Batzuetan bai. Duela bi aste, esaterako, bost jokalari besterik ez ginen aritu. Hobe da 18 egotea, badaezpada.
G. Puntuatu ezazu zure taldea 1etik 10era.
G. 8.
G. Zein talderen jarraitzailea zara?
E. Athletic. Onenak gara.
G. Jokalari bat.
E. Bittor Alkiza.
G. Futbol gehiagi ematen dute TBn?
E. Batzuetan. Baina oso atsegin dut eta ez naiz kexatzen.
G. Kirolari gustokoena?
E. Julian Retegi.

gora eta behera



Tom Cat-ek gorakadarik handiena

A, B eta C multzoetan aldaketa ugari izan dira sailkapenean, baina nabarmenenetarikoa, Tom Cat Argandolas taldeak lorturikoa izan da. Seigarren postuan izatetik, lehendabiziko postura igo da, guztira 10 puntu dituelarik.



Arbitratzeko, arauak jakitea beharrezko

La Juve taldeari hiru puntu kendu zaizkio txapelketako arauak ez ezagutzeagaitik. Ondorioz, Antolaketa Batzordeak, arbitratzeko garaian arauak ezagutu behar direla gogorarazi nahi du.

emaitzak

Ari Ari-Mo(ko)lotov	3-2
Etengabe-Artusamak	0-7
Buya-Patatus	3-2
Guadalest-Moskis	3-2
SLP-Irubide Jatetxea	0-3
Guadaest-Agiñaspi	4-1
Xurruapak-Igandekoak	5-0
Artusamak-Urrutxurtu	2-1
Usoa-SLP	5-3
Moskis-Pinturas Bergara	4-3
Komando Piperrak-Txipiron	10-3
Matxakategi-Mo(ko)lotov	2-5
Agirrebeña Jatetxea-Zubixaurre Punk	10-2
Igandekoak-Patxaran Team	0-3
La Juve-Etengabe	2-2
Uve Bikoitza-Tom Cat Argandolas	2-4
HHH-Arbe Kirolak	1-4

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	7	3
2. Errotagain	7	3
3. Pagomendi	4	2
4. Azpeitxi Jatetxea	3	3
5. Bildurbarek Opel/Lam	3	3
6. Jauja OH Zerezos	3	3
7. Shaktale	3	3
8. Ortzi	3	3
9. Mongatxurrak	3	2
10. Bar Canalejas	3	2

A multzoa

	P	J
1. FAC	9	3
2. Artusamak	9	3
3. Txipiron	6	3
4. Komando Piperrak	6	3
5. Urrutxurtu	6	4
6. Usoa	6	4
7. Etengabe	4	4
8. Irubide Jatetxea	3	3
9. La Juve	1	2
10. Ion Autoak	0	2
11. SLP	0	3

B multzoa

	P	J
1. Tom Cat Argandolas	10	4
2. Arbe Kirolak	9	4
3. Moskis	9	4
4. Guadalest	7	3
5. HHH	7	4
6. Uve Bikoitza	6	4
7. Agiñaspi	4	3
8. Buya	4	4
9. Ufala	3	3
10. Pinturas Bergara	2	4
11. Patatus	1	4
12. Amozkibar	0	3

C multzoa

	P	J
1. Bayer	9	3
2. Xurruapak	9	3
3. Patxaran Team	9	4
4. Ezinleike	7	3
5. Eri Sirimiri	7	3
6. Ari Ari	6	3
7. Mo(ko)lotov	6	4
8. Agirrebeña Jatetxea	4	4
9. Matxakategi	3	4
10. Igandekoak	1	4
11. Amilotx	0	3
12. Zubixaurre Punk	0	4



Nietorenak hirugarren postuan

Preferete mailako mutilak, sailkapenean 3. postuan kokatu dira, Aloña Mendi eta Anaitasunaren atzetik. Azken partiduan, eztabaida ugari izan arren, 0-1 irabazi zioten Pasajeseri. Lokatz asko bilatu zuten Bergarakoek futbol zelaian.

Lehen zatian Bergara nagusitu zen eta bigarren zatiko 46. segunduan pasaiatarrek bere atean gola sartu ondoren, mahoneroek nahikoa lan izan zuten partidu amaierara arte emaitzari eusten. Pasaiatarrek gol aukera nabarmenak izan zituzten eta bi penalti eskatu zituzten baina epaileak ez zituen ikusi. Horrek haserre bizian jarri zituen zaletuak.

Bergararrek, lau partidua irabazi, bat galdu eta beste bat berdindu dute.



Iraundik, bitik bi irabazi

Eskubaloiko talde nagusia une onean aurkitzen da. Ormaiztegin irabazi ondoren, joan zen astean Mutrikuko Jauja taldearen kontra ere nagusitu egin zen, 21-25 irabaziz. Partidua azken unean erabaki zen: 5 minutu falta zirela, bi taldeak berdinduta zeuden markagailuan baina Lijorenak azken unea aprobeztatzen jakin zuten.

Taldean jende gaztea eta fitxaketa berriak badira ere, jokalaria fisikoki ondo zaindu dira eta horrek partiduen azken uneraino arazorik gabe iristea erretzutu du. Ekain eta Garikoitz izan ziren gehien nabarmendu zirenak: lehenengoak sekulako geldiketak egin zituen. Arbitroa ere zuzen aritu zen.



Jubenil neskak bikain

Jubenil mailako neskak, hasiera bikaina eman zioten denboraldiari Azpeitian. 27-43 emaitza lortuz etorri ziren etxera.

Partiduko lehen zatian ez zuten zorte handirik izan azpeitiarrak gogor aritu baitziren. Partiduak aurrera egin ahala, David Urbina entrenatzaileak hainbat tarte eskatu eta taldeak egonkortasuna lortu zuen. Maite Usabiagak baloi ugari berreskuratu zituen eta, ondorioz, presioa handituz joan zen. Zortzi puntuko aldea lortuz gero, saskiratze nagusiak Bergarako neskak egin zituzten. Jokalari gutxi izateak, faltak ez egiteko argi ibiltzea eskatzen du baina ez ziren bost falta egitera iritsi eta, ondorioz, inor ez zen kanporatua izan.

RACHAEL OLABARRIA / Futbito jokalaria "Euskal selekzioan izatea izugarria da"

Hamar urterekin hasi zen futbolean eta orain futbito-ko Lagunak talde federatuko jokalaria da. Duela bi aste, Euskadiko futbito selekzioetik deitu zioten, Aste Santuan Zarautzen antolatuen Espainiako txapelketan jokatzeko.

G. Nolatan aukeratu zenuen futbola?

E. Eskola Kirolean aritu nintzen lehendabizi eta infantil mailara iritsitakoan, kirol bat aukeratu beharra zegoen. Futbola oso gustokoa daukat eta, ondorioz, BKE-n hasi nintzen jokatzeko. Hiru urte izan naiz bertan. Azkenengo urtean, Bergarako taldean eta, aldi berean, futbitoko taldearekin entrenatzen nuen,

partidua jokatzeko aukerarik izan ez arren.

G. Euskadiko selekzioan bergarar bakarra zara, ezta?

E. Bai. Albiste pozgarria izan zen niretzat. Gipuzkoako Federazioak estatu mailako ligarako atera duen taldean jokatzeko deitu zidaten lehenengo, baina gazteegia naiz. Ondoren, Euskadikoan izateko deia zabaldu zidaten eta kadete mailan egoteko adina betetzen dudanez, Zarautzeko txapelketan izango naiz. Hiru egunez jokatu dira partidua eta estatuko autonomi elkarte guztietako taldeak izango dira bertan. Lehendabiziko partidua Andaluziaren kontra daukagu.

G. Gurasoak joaten dira partidua ikustera?

E. Nahiago dut ez badira etortzen. Ama gustora joango litzateke baina ezagutzen dut eta badakit urduri jarri eta oihuka hasiko litzatekeela.

G. Futbolzale amorratua zara?

E. Bai. Realzalea. Realaren partidu gehienak ikusten ditut. Jokalarien artean, De Pedro dut gustokoen.



FUTBOLA

Bergara-Beti gazte

Preferente mailako Domeka. 16:30. Agorrosin

Bergara-Hamaika Bat

Lehen mailako kadeteak Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Eibartarrak

2. mailako kadeteak Domeka. 11:30. Ipintza

PILOTA

Bergara-Aretxabaleta

Kadeteak

Bergara-Lagunak

Jubenilak

Bergara-Lagunak

Juniorrak

Bergara-Ilunpe

2. mailako seniorrak

Bergara-Lagunak

Lehen mailako seniorrak Partidu guztiak gaur, eguakitza, 22:00etatik aurrera Udal Pilotalekuan

SASKIBALOA

Bergara-S. Tomas Lizeoa

Jubenil neskak Zapatua.16:00. M. Lagundia

Bergara-Zumaia

Kadete mutilak Domeka. 10:30. M. Lagundia

Bergara-Almen

kadete neskak Domeka 11.15. M. Lagunadia

ESKUBALOA

Bergara Iraundi-Zarautz

Seniorrak Domeka. 17:45. Kiroldegia

Bergara-Usurbil

Jubenil neskak Domeka. 16:15. Kiroldegia

Hilabete itxaron ondoren, pilota denboraldia abiatu da

Federazioan izandako barne-arazoek sortu dute atzerapena

Azken aldian, Bergara Kirol Elkartearen baitan nabarmendu diren kirolari eta arduradunak pilotan jardun eta lan egiten dutenak izan dira. Harrobi paregabea bilakatu da BKE pilotari profesional izan nahi duten mutilentzat. Profesionaletan ez ezik, beste maila batzuetan ere lan txukuna egin eta txapel ugari eskuratu dituzten pilotariak daude. Iker Muruamendiaraz, esaterako, Mexikoko mundialetan dago une honetan.



Joan zen denboraldiko Bergara Hiria txapelketako irabazleak, antolatzaileak eta BKEko zuzendaritzako kideak.

Gainontzeko urteetan irailaren erdi aldera ematen dio pilota sailak hasiera denboraldiari baina oraingoan, Gipuzkoako Federazioaren erabakiz, atzeratu egin da. Gaur, eguakitza, 22:00etan, Gipuzkoako Liga hasiko da Bergaran. Reyes Azkoitia adierazi digunez, "izen-emate eta barne arazoak izan direla ohartarazi digute federaziotik baina dena dela, epea asko atzeratu dela uste dut. Entrenamenduetan dabilzan gazte txoak, partiduak noiz izango diren galdezka eta jokatze irrikaz egon dira. Federazioan barne arazoak izan dira eta horregatik atzeratu da txapelketa".

BKEko pilota saila hainbat txapelketatan izaten da eta Bergara Hiria txapelketa antolatzeaz arduratzen da urtero. Irailetik Gabonak heldu arte, Gipuzkoako Li-

ga jokatzen da eta liga honetan maila bakoitzeko lehendabiziko hirurak, Euskal Liga jokatzerira iristen dira, urtarriletik martxora arte. Bitartean, Deba Arroko txapelketa eta, ondoren, Herrien Arteko txapelketak izaten dira helburu nagusiak. "Dena dela, herriek antolatzen dituztenetan ere izaten gara. Guk Bergarako Hiria txapelketa antolatzen dugun bezala, gainontzeko herriek beste hainbat antolatzen dituzte eta bertan parte hartzen dugu".

Laguntzaileen lana

Reyes Azkoitia eta Luis Mari Gutierrez dira pilota sailaren arduradun nagusiak. "Luis Marik aurrekontua eta federazioarekiko ha-

remanak daramatza eta nik kadete mailatik gora dauden mutilak entrenatzen ditut. Semea pilotan hasi zenean bai ni, bai Gutierrez eta baita gainontzekoak ere partiduak jarraitzen hasi ginen. Lagundu beharra zegoela eta, bertan lanean hasi

eta, dagoeneko, zazpi urte pasatu dira. Dena dela, gurasoek, kolaboratzaileek, epai lanetan jarduten dutenek eta gaztetxoez arduratzen diren pilotariek lan bikaina egiten dute eta laguntza handia eskaintzen digute. Jendearen jarrera pare-



"Ikusle ugari izaten da asteburuetan maila denetako partiduak ikusten. Zaletasun handia dago"
REYES AZKOITIA

gabea da". 10-14 urte bitarteko gaztetxoak, Iker Zabaletaren aginduetara daude eta 10 urtetik beherakoak, berriz, Inigo Zabaletak entrenatzen ditu.

Profesionalak

Reyesen hitzetan, "hasierako helburua, profesionalentzat jokatzeko ari zirenak gaztetxoekin arduratzea zen. Oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun gaztetxoekin profesionalen aholkuak jasotzea eta beraiekin harreman zuzena izatea. Ez da horrela izan eta alde batetik ulertzeko da, lan handia baitute beraien entrenamenduekin. Entrenatzen ditudan gazteak laguntzera etortzen dira batzuetan. Txapelketetan ondo aritu eta nabarmendu direnekin, esaterako, harremana dute profesionalak".

Aurreko denboraldian Iker Muruamendiaraz eta Ander Muguruza izan dira ondoen ibili direnak, bakoitzak dagokion mailan eta



Aurten ere, La Guipuzcoana arduratuko da pilotarien jantzieta.

Diario Vascoren txapelketa jokatzeko aukeratu dituzte. Ikerrek Errege Kopa irabazi zuen eta, gainera, Espainiako txapeldunorde izan da eta Igor Gutierrezekin batera, Deba Arrokoan azpi txapeldun gelditu zen. Une honetan, Haritz Berraondorekin Mexikoko txapelketa jokatzeko dago. Aranzetak eta Martinek ere denboraldi polita egin zuten. "Maila polita lortzen ari dira pilotariak eta


horrek ikuslearen interesa pizten du. Pilotalekuan ikusle ugari izaten da aste-bukaeran. Jendea maila guztietako partiduak ikustera inguratzen da eta esker-tzekoa da. Bestalde, entrenamenduetarako tokiari dagokionez, Udalarari ere esker-rak eman beharra dago, aste osoan zehar izaten diren entrenamenduetan ez baitugu Udal Pilotalekua erabiltzeko arazorik izaten". B

Giartzu gimnasioak step maratoia antolatuko du

Giartzu gimnasioak step maratoia antolatuko du Azaroaren 24an Labegarieta Kiroldegian. Antolatzaileek esan digutenez, "estatu mailan lehendabiziko aldiz egingen den maratoia da. 300 lagun inguru biltzea espero dugu. Ez dago aerobika praktikatzen dutenentziko soilik zuzenduta. Ariketa errezak eta arinak izango dira, adin guztietako jendea inguratzea nahi baitugu".

Maratoiak hiru ordu iraungo ditu eta 20 minutuko saioak izango dira, tartean 5-6 minutuko atsedendia izango delarik. Monitore bakoitzak bere koreografia izango du eta parte hartzen dutenek ariketak jarraitu beharko dituzte. Monitore lanak, Iñaki Aranak (Iruñea), David Pozok (Alicante), Jon Aranbarrik (Arrasate), Mari Jose Corbellak (Donostia) eta Giartzu gimnasioko Marisabel, Gemma eta Anak egingo dituzte.

Gipuzkoako hainbat herritatik ez ezik, Nafarroatik ere etorriko dira parte hartzera Labegarietako topagunera.



Eskola kirolean dabiltzan haurren artean, pilotak arrakasta handia du.

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

ARREGI


**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegarietan.
Tf. 943 76 27 93

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu amueblatua salgai Antzuolan. 943 76 60 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. 943 76 49 74.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Pisua salgai San Lorentzon. 943 76 31 16.

Pisua salgai Martokan. 943 76 34 20/37 99.

Pisua salgai Aranerrek. 943 76 52 17.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 94 658 32 05

Errentan hartzeko

Berrizteko dagoen baserri bat hartuko genduke. 943 79 48 09 (Itziar).

Etxe konpartituak

Neska behar da Donostian pisua osatzeko. 943 71 49 46.

Bergaran pisua osatzeko lagun bat behar da. 943 76 47 55.

Bi pertsona behar dira

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

erosiko nuke Bergara inguruan. 943 76 70 24.

40 m2 inguruko biltegi edo baxu bat behar dugu. 945 14 17 84 (17:30-20:00).

4. LANA

Eskaintzak

Edadetuak zaindu edo etxeko garbiketarako egingo nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zainitzen ditu. 943 76 64 47.

Goizez, etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. 943 76 46 07.

Atarien edo etxeen garbiketara. 919 52 98 04.

Etxeko lanak orduka. 943 76 57 59 (Julia).

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. 943 76 03 76.

Edadetuak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 09 33.

Helduak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke (astebukaeran). 943 76 50 46.

Lanak ordenadoren pa-

Bilbon (San Nazio) pisua osatzeko. 943 77 13 77.

Donostian (Amara) bi lagun behar ditugu pisua konpartitzeko. 943 79 27 42.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Masterrakan. 943 76 27 71.

Garajea salgai Burdiñan. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Garajea salgai Masterrakan. 943 76 24 57.

Boni Laskurain. 943 76 17 84.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

Errentan emateko

Garajea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Ibargarain. 943 76 56 91.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan.

943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. Telefinoa: 943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai A. Fleming. Deitu 943 76 00 84 / 35 83 telefonoetara.

Erosi

5.000 m2ko lursaila



Kizkur
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma
Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



JAKINA
SUKALDE ETA
BAINU-ALTZARIAK
Hainbat lanetarako
mutil bat behar dugu
943 76 03 30
(Elsa)

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

GURIDI altzariak
Era guztietako
altzariak
Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga 5 ☎ 943 76 18 29

satzen ditut (testuak zein grafikoak).
943 76 61 24.

Tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 37 56.

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke.
943 76 26 82/76 57 34.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 943 78 70 32 (Sara).

Esperientziadun neska batek helduak zainduko lituzke. Deitu 943 76 32 16 zenbakira.

Eskaerak

Antzuolan neska bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Deitu 943 78 71 06 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Lizentziatuak mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. 943 76 70 40.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

Filologia ingelesean li-

zentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu. 943 76 65 24.

Majisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

Enpresaritzako klaseak. 943 76 05 43.

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Majisteritzako diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Arte Ederretan lizentziatuak pintura, marrazketa eta grabatu klaseak ematen ditu.

943 76 03 83 (Dani).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Renault-9 kotxea (SS-V) salgai. 943 76 25 31.

Rover 216 (NA-W). 943 72 63 47 (Angel).

Alfa Romeo 33 1700 i (SS-AK). Aire egokitua. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Remolkea salgai. 1,10x1 m. Poliesterrezko tapa. 943 76 37 87.

Kotxea (SS-V) salgai. Deitu 943 76 36 74 telefonora.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Opel Corsa 1400 kotxea (BI-BF) salgai. 94 658 24 70 (Nerea).

Ford Sierra kotxea (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

Saldu

Artzain-txakurrak eta

polizia-txakurrak salgai. 943 76 52 21.

Beagle (eta honen gurasoak) eta Tekel txakurkumeak salgai. 908 87 93 76.

8. DENETARIK

Saldu

Calloy mendiko bizikleta. 943 78 70 58.

Bainurako manpara, 1,55 m. 943 76 64 65.

Lur entziklopedia salgai. 943 76 02 79.

Bizikleta estatikoa salgai. la berria. 10.000 pezeta. 943 76 07 88.

Kotxerako Pioneer irratikaseta eta edurretarako kateak salgai. 943 76 08 25.

Ohe bat (133x180) salgai. 943 76 11 11.

Flex markako litera bat (35.000 PTA) eta telefonoarendako egurrezko mueblea (10.000) salgai. 943 79 57 64.

Erosi

Hozkailua erosiko nuke. 943 76 50 58 (M. Tere).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**HARDWARE
TEKNIKARIA**

Deba Behea. 12437/2

**INSTALAIEN
MONTATZAILEA**

Donostialdea. 12680/3

PEOIA

Donostialdea. 13207/3

PROMOTOREA

Ibai Eskuinaldea. 13239/4

FRESATZAILEA

Beasain. 13274/4

ESPEZIALISTA

Deba Behea. 13323/2

**TAILERREKO
2 ARMADORE**

Gasteiz. 11786/3

PEOIA

Bilbo. 13480/3

**ENPRESAGINTZAN
DIPLOMATUA**

Zamudioko Teknologia Parkea. 13390/3

**KALEFAKZIO
INSTALATZAILEA**

Gasteiz. 13015/3

**OBRAKO
MONTADOREAK**

Gasteiz. 11783/3

**MANTENIMENDU-
RAKO MEKANIKOA**

Tolosa. 12162/4

**TELEMARKETING
ARDURADUNA**

Donostia. 13163/2

**ANALISTA
PROGRAMATZAILEA**

Ibaizabal. 13138/2

CNC LANGILEA

Bilbo. 12911/5

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**EDEL
TAPIZDENDA**

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

**DARDO TXAPELKETA
POL-POL TABERNAN**

301 erara

Urriaren 24an, 16:00etan
Finalak:
urriaren 25ean, 18:00etan

**Izen ematea,
EGINen alde:**
200 pezeta, Pol-Polen

SARIAK:
25.000, 10.000 eta 5.000 pezeta

BIZKOTIAK, ERREILENOAK ETA TOJTOAK

Larrañaga

San Pedro.9-Telefono.761051

R.S.I. 209374-55

BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

Udazken Kulturala abian Gabonen atarira arte

Eskaintza zabala: musika emanaldiak, antzerkia, zinea eta erakusketak

Estilo guztietako musika emanaldiak, antzerkia, zinea eta erakusketak dira aurtengo Udazken Kulturalako ardatz nagusiak. Gabonetako kontzertuarekin amaituko da abenduaren 19an.

Gaur bertan, iluntzeko 20:00etan, "Bergara 1926" Azkona anaien filme labur eraberritua estreinatuko da Novedadesen. Proiektzioaren aurretik, Pello Aldazabal Euskal Filmategiko zuzendaria aurkeztuko du pelikula.


Bestalde, Jam aretoan gaur, eguakitzan, 22:30etan izango da Udalaren laguntzaz azken asteetan antolatu diren rock kontzertuetako azkena; Jesus Lizard eta Pulkas taldeak izango dira. Chicagokoak hard-core fisiko eta mentala eskaintzera datoz Bergarara. Soinu berriak, hau da, sampler-ak eta musika elektronikoko elementuak nahasten maisuak dira. "Blue", kritikak urteko disko onenen artean jarri duen diskoa aurkeztuko dute. Eurekin batera, Pulkas ingelesak izango dira. Deftones, Tool, Coal edo Korn taldeekin konparatu dituzte, baina aboangoardiako metala jotzen dute. Sarrera: 1.000 PTA.

Bestalde, astebukaera honetarako beste bi musika emanaldi iragarri dira Udazken Kulturalaren programaren barruan. Alde batetik, Roman Perucki organista poloniarrena bihar, zapatua, 20:00etan San Pedro elizan eta, bestetik, Udal Musika Bandarena, domekan, 12:30etan, Udal Pilotalekuan.

Bi antzerki emanaldi

Bestalde, bi antzerki emanaldi iragarri dira. Alde batetik, azaroaren 7an,

zapatua, "Kale gorrian" lana antzeztuko du Markeliñe taldeak Novedadesen, 22:30etan. Sarrera 800 pezeta kostatuko da (500 PTA Gazte txartela dutenentzat eta langabetuentzat). Bestetik, abenduaren 12an Fregoli



taldeak "Kromlech" muntaia antzeztuko du Novedadesen, 22:30etan. Sarrerak prezio berean jarriko dira salgai.

Abesbatzak eta organujoleak

Udazken Kulturalako programaren gainontzeko emanaldiak musikalak izango dira. Laudibus Britainia Handiko abesbatza Mizpirualdeko Santa Maria Magdalenaren ermitan izango da hil honen 29an arratsaldeko 8etan; Gas-



teizko Alaitz abesbatzak, osteran, kontzertua emango du San Pedro parrokian azaroaren 14an ordu berean.

Horretaz gain, bertako musika taldeek ere izango dute tokia: Bergarako Orfeoia eta Opus III perkutsio taldea, azaroaren 21ean Udal Pilotalekuan izango dira, 22:30etan; hurrengo egunean, domekan, Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua izango dira Udal Pilotalekuan eguerdiko 12etan. Abenduaren 12an Musika Eskolako taldeak Novedadesen izango dira eta Udazken Kulturalako azken emanaldia ohiko Gabonetako kontzertua izango da, abenduaren 19an, Udal Pilotalekuan.

Horretaz gain, Adalberto Martinez Solaesa, organujole malagarren emanaldia dago iragarrita azaroaren 28rako San Pedro parrokian. B

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar

Artetalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

kronika

Orotariko rock kontzertuak

Era ezberdinetako musikarekin gozatzeko aukera izan genuen joan zen astebukaeran Jam aretoan. Asteburu luzea zenez, hiru emanaldi antolatu ziren.

Eguakitzean Jam aretoaren bigarren urtebetetzea ospatzeko, Euskal Herriko lau talde gazte ekarri zituzten: Kashbad, Latzen, Noizbait eta Eraso! Lehenengo biak beterano samarrak, dagoe-



neko, bertako musika panoraman. Noizbait eta Eraso!, berriz, trash, metal eta soinu industrialen eredu berriak. Bildutakoek, jende gaztea, gustora pasatu zuten gaua.

Zapatuan, bestalde, Angelic Upstairs eta Stiches taldeen punk musika entzuteko leporaino bete zen aretoa. Britainiarren emanaldi bakarra zen estatuan eta Madriletik eta Bartzelonatik lau autobus etorri ziren; beste bi, Bilbotik. *Punk* eta *skin* ugari inguratu ziren. Angelic Upstairs-ek betiko kantuak eskaini zituen, entzuleriak buruz zekizkienak. Kantu batetik bestera etenaldi luze samarrak egin zituzten eta horrek bizkortasuna kendu zion emanaldiari. Stiches-ekoek, ostera, kontzertu frentetikoa eman zuten. Domekan, azkenik, Kramer (argazkian) eta Migalaren kantu intimo eta lasaia entzuteko 150 bat lagun bildu ziren. Madrildarrekin gustora geratu ziren bildutakoek; ez hainbeste Kramerrekin. B

Herriko hainbat pintoreren eskolakoek egindako lanen erakusketa zapatuan San Martin plazan

Bedelkarrek antolatuta pintura erakusketa izango da bihar, zapatua, goizean zehar Seminarioko eta Udaltzeko arkupeetan.

Erakusketan Mari Paz Alustiza, Juan Jose Altuna, Edurne Eraña eta Dani Lascurainen ikasleek egindako margoak izango dira ikusgai.

Bestalde, honekin lotuta, Bedelkarrek lehiaketa bat antolatu du: zapatu honetatik hilaren 30era bitartean, Be-

delkarreko denda eta tabernetan, txartelak izango dira, lehiaketan parte hartzeko. Asmakizun bat izango da eta honako hiru pista emango dira: daukanak asko margotzen du, ileak ditu eta berde kolorekoa da. Parte hartu nahi dutenek, zer den asmatu eta txartela bere datuekin bete beharko dute. Bedelkarrek 100.000 PTA banatuko ditu saritan eta bost sari emango dira: 20.000 PTA-ko bost erosketa txartel. B

erreseinak



Josemari Velez de Mendizabal
Samurai berria
Eleberria

Samurai Berria japoniarren enkargu bat bete behar du Kosme Zubiak, euskal espiarik internazionalenak, baina ez ei dauka oso garbi zer egin behar duen eta CIA, FBI, Txinako Triada eta Japoniako Yakuza mafiak nahasturik dauden korapilo batean murgilduko da. Nazioarteko politikaren ezaguera eta intrigaren legeen menperatzea abilki josi ditu Velez de Mendizabalek espioitza nobela arin eta bizi hau idazteko. Genero honetako hirugarrena du.

- Elkarlanean. 185 orr. 1.620 PTA



Bide Ertzean
Bide Ertzean
Pop

Deabruak Teilatueta taldeko kideen proiektu paraleloa; haren aurpegi poperoa, Bide Ertzeanek kontzeptu akustikoa baitu abiapuntu. Bestalde, Susa argitaletxearen inguruko hainbat poeta lagunekin batera Ubeda anaiek bultzatutako "Dana lanbrote ikustot" muntaian dago proiektu berri honen muina. "Bide ertzean topatu ditut poesia, kantua eta desioa..." dira diskoa ipini eta entzun daitezkeen lehen hitzak eta esaldiak ederki definitzen du taldea. Diskoak bost kantu pop bikain biltzen ditu. Akorde sinpledunak eta zuzenak baina Fran Iturberen kitarrez jantziak. Gutxitan egin ohi da ganorazko popa euskaraz. Hau ganorazkoetakoa da.

- Gaztelupeko Hotsak. 1.000 PTA

PANA DE ROKUA
IA TET XEAL

Asteburuetan bertako
babak eta sabieskia

SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73

LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Higidura. 2. Akitaniar. 3. Errioxako herria. Prezipitaziomota. 4. Atomoari dagokiona. Aurrizki latinoa. 5. Karta-joko. Oxigenoa. Hiru. 6. Sufrea. Momentu. Iparraldean, ardo. 7. Azti ezaguna. Soroa. 8. Nortasun Agiri Nazionala. Zati bi. Kontsonantea. 9. Antzerki mota. Trebe. 10. Bururatua. Zabor.

Goitik behera

1. Mahatsa ematen duen zuhaixka. 2. Ezeztatu. Zirt... erabaki. 3. Giro jakin bat eman. Nauka. 4. Itolarria. Masurioa. 5. Malagako ibilgailuetan. Bokala. Hitza. 6. Gizon izena. Zakur. Azkena. 7. Afrikako ibaia. Abere belarjalea. 8. Bizkaieraz, du. Barreak. 9. Europako estatua. Kasik. 10. Bi bokal. Esaten ari da. Sentimendu gabe.

Soluzioa

10. Ao. Dio. Sor. 9. Ukraina. Ia. 7. Nilo. Ardia. 8. Dau. Irriak. 5. Ma. I. Etea. 6. Eneko. Or. Z. 3. girotu. nau. 4. Iomena. Ma. 1. Mahatsondo. 2. Ukatu. Zart. Goitik behera. 9. Drama. Iai. 10. Otu. Zakar. 7. Oz. Alorra. 8. NAN. Erdi. S. 5. Tute. O. III. 6. S. Une. Arno. 3. Haro. Elur. 4. Atomiko. Ad. 1. Mugimendua. 2. Aktitanako. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereibar

Bergarako zein kaletan dago inskripzio hau? Eta zein herrialdetan hil zen Justo Garate 1994. urtean?

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Zubi-berri** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Inma Beristain**entzat izan da: Tartufo jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Inmari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Mendi Nekazaritza Elkarte** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Organojole poloniar bat izango da zapatuan San Pedron. Nor?
A- Roman Perucki
B- Roman Kosecki
C- Romano Prodi
2. Zein bergarar enpresa da Orio Arraun Elkartearen babeslea?
A- Meca-Renault
B- Otsein
C- Jam aretoa
3. Zein urtetan inauguratu zen Agorrosin futbolzelaia?
A- 1968an
B- 1951n
C- 1953an

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

ZUBI-BERRI
JATETXEA
San Anton auzoa
TF. 943 76 30 24

Abaltzisketakoa jaiotzez, 25 urte daramatza Arrasaten bizi izaten eta Meca-Renault-en lanean. Ezkonduta dago eta bi alaba ditu. Azaroan urtebete egingo du Amillagako kontzesionarioaren arduradun moduan.

Gogoratzen duzu zure lehen kotxea?

Bai, Seat 850 bat, 19 urte nituenean.

Eta orain zein kotxe daukazu?

Renault Laguna bat.

Kotxe txikiak ala handiak?

Txikiak nahiago.

Kotxean gehien baloratzen duzuna?

Segurtasuna.

Gidatu, zuk ala gizonak?

Gizonak normalean.

Aditua al zara mekanika kontuetan?

Bai.

Motor aldizkaririk irakurtzen duzu?

Automovil, egunkarietako informazioa...

Zer behar da kotxeak saltzeko?

Kotxea ondo ezagutzea.

Jendeak garbi izaten du nahi duena?

Ez.

Bikote bat etorritz gero, nork erabakitzen du?

Andreak normalean.

Kotxeak saltzeko sasoirik onena?

Aurten urte guztian. Urte ona izan da.

Konpetentziari beldurrik?

Ez.

Lanik gogokoena?

Administrazio kontuak eroatea.

Eta laneko gauzarik txarrena?

Beti presaka ibili behar izatea.

Kotxe marka bat, Renaultez gain?

Ferrari.

Kotxerako kolore bat?

Gorria.

Kontxi Etxeberria

Eta gustatzen ez zaizun bat?

Beltza.

Gidari bat?

Schumacher.

Hobby bat?

Irakurtzea.

Gustoko idazle bat?

Perez-Reverte.

Mania bat?

Ez dut uste daukadanik.

Egindako azken oparia?

Jertse bat, lagun bati.

Eta jasotako azkena?

Zapatak eta boltsa bat (senarrak).

Jantzirik gustokoena?

Trajea.

Askotan ikusi duzun filmea?

Los ultimos dias del Eden.

Ikusitako azken antzerki-lana?

Ez dut gogoratzen.

Zein ordutan oheratzen zara?

Hamaikak aldean.

Eguraldiko informazioa jarraitzen duzu?

Bai.

Egun euritsuak atsegin?

Ez.

Botoa emango duzu urriaren 25ean?

Bai.



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



ASPERTZEN EZ DUEN ZINTZARRIA

Egun osoa euskaraz

Bertsok, trikitixa,
musika goxoa,
herri kirolak,
elkarrizketak,
kultur saioak,
herrietako berriak,
umeen irratsaioa,
alaitasuna...

Tf. 943 12 01 61 Faxe: 943 12 01 73. 212 postakutxa 20600 Eibar.

MIZPILDI



OKINDEGIA

DOMEKAN ZABALDUKO DUGU

Okindegia eta kafe dastaketa

Matxiategi 1

943 76 72 73

PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

Kongresu eukaristikoko desfilea, 1945

Kongresu eukaristikoa izan zen Bergaran 1945. urteko ekainean. Kongresuak orduko eliza-buruak herrian bildu zituen. Prozesioak, gur egiteak, elizkizunak eta beste hainbat ekitaldi egin ziren eta kongresuak ikusmin handia piztu zuen herritarren zein inguruko bisitarien artean. Horren adierazgarri duzue goiko argazkia. Herriko kale eta balkoiak egun horretarako jantzi eta desfile ikusgarria egin zen.

Argazkia Barrenkalean aterata dago, Irizar jauregiaren parean. Jende askok hartu zuen parte aipatutako desfilean eta argazkian ikusten den karroza dotorea Altos Hornoseko eskolak atera zuen. Karroza gainean eskolako hainbat ikasle ikus ditzakezue, aingeru jantzita. Beraien izenak jakiterik izan ez dugun arren, horra hor kongresu eukaristikoa estampa birkaina.

Argazkia: Begoña Irastorza



OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

Gaskide, S.L.

ITURGINTZA OROKORRA
GASA ETA KALEFAKZIOA

☎ 943 76 49 00

HELBIDE BERRIA:
Aritzetako San Migel 8-10
BERGARA



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Gidari onenek

OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREera

Azkartu  **itzazu zure bonifikazioak**

Orain zure automobilaren aseguruia aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**

Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor^oezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.**

 **MAPFRE**

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

HITZALDIA

EUROA MERKATARITZAN

**Moneta bakarra ezartzeari buruzko azterketa
Merkataritzarendako inplikazio eta ondorioak**

Urriaren 21ean, eguaztena

14:15etan

Bergarako

UNEDeko 3.2 gelan

Laguntzailea:

Antolatzailea:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.



6 URTEKO
GARANTIA



Sukaldeko altzariak